



gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

PROGRAMA
EUSKARA

UZTAILA ABUZTUA IRAILA 2021



gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Jar zaituz harremanetan

Az-rekin

azkunazentroa.eus

Artea: programacioncultural@azkunazentroa.eus

Deialdiak: deialdiak@azkunazentroa.eus

Erabiltzaileentzako arreta: info@azkunazentroa.eus

944 014 014

PLAZA ARRIBAR, 4

48010 BILBAO



«Krisi ekologikoa sentiberatasun-krisiaren terminoetan ulertu behar da. Sentiberatasun-krisia hitzen, hautemateko gaitasunaren, emozioen eta mundu biziarekin ehundu ditzakegun harremanen pobretzea da».

Baptiste Morizot (Filosofo)



- 7 **Kultura eta errealitate eraldatua.** Fernando Pérez. Azkuna Zentroko Zuzendaria
- 8 **Artea eta natura nagusi** Azkuna Zentroaren uda honetako programazioan
- 10 **Bisita iruzkinduen programa:** espazioaren eta programazioaren bidez esperimintatzea
- 12 **Sormen artistikorako ate irekiak:** prozesuekin topaketa
- 14 **Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarriketak eta deribak**

PROGRAMAZIOA

/Arte bisualak

- 18 **Ana Laura Aláez.** *Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío.* Erakusketa
- 20 **José Ramón Ais.** *Baso bidaiariak / Bosques viajeros.* Instalazioa
- 22 **Elena Aitzkoa.** *Lendia Song.* Erakusketa
- 24 **Maider López.** *Personaje.* Erakusketa
- 26 **Miriam Isasi.** *Resina, brea y glicerina.* Erakusketa
- 28 **Diego Sologuren & Sébastien Tripod.** *BroadWindow.* Instalazioa
- 30 **Elsie Ansareo.** *BIO-INT-DÍA.* Instalazio fotografikoa
- 32 **Maider Aldasoro.** *Aurrean goxo.* Instalazioa
- 34 **Karlos Martínez.** *Plan K. Güt.* Instalazioa

/Arte biziak

- 36 **Irati Inoriza.** *Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo.* Instalazioa
- 38 **Musika Loturak / Bilboko Udal Bandaren kontzertuak** Musika
- 39 **Dendaz.** *This Is Basque Design.* Diseinua
- 42 **Iker Vázquez.** *Az Reality Lab.* Instalazioa

/Zinema eta ikus-entzunezkoak

- 44 **Laida Lertxundi.** *8 Toapeketa.* Zinema eta ikus-entzunezkoak
- 46 **Kinu #5: Imogen Stidworthy.** Zinema eta ikus-entzunezkoak / Arte garaikidea / Proiekzioak
- 48 **Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan.** Zinema eta ikus-entzunezkoak
- 49 **Golem Uda JBA .** Zinema eta ikus-entzunezkoak





SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

- 54 [Aimar Arriola](#). *Forma-desira bat*. Ikertzaile Az-Kidea
- 56 [Isabel de Naverán](#). *Uhina gogoan*. Ikertzaile Az-Kidea
- 58 [Babestu](#): prozesuan dauden proiektuak. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa
- 60 [Artista eta Ikertzaile Az-Kideak](#)
- 62 [Societat Doctor Alonso](#). *Hammamturgia*. Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa
- 63 [Kinu](#). *Tractora Koop. E*. Kolektibo egoiliarren programa
- 64 [Javier Arbizu](#). *Talud mediodía*. Komisario berriak
- 65 [Deialdiak eta egonaldiak 2021-2022](#)

HEZKUNTZA PROGRAMA

- 68 Txikitekako esperientzia berriak
- 69 Haur eta familientzako bisitak / tailerrak
- 70 Inventario del rellano. Un inventario de lo imposible

AZ

- 72 Komiktekako funtsa berrantolatzea
- 74 [artxiboAZ](#): Gordailu digitala proposamen artistiko garaikideak ulertzeko tresna gisa
- 76 Osasun-programa berria
- 78 Azkuna Zentroa argitalpenak

AGENDA

- 84 Agenda
- 88 Informazio orokorra
- 90 Azkuna Zentroa, gune segurua



José Ramón Ais. Baso bidalarriak / Bosques viajeros



Kultura eta errealitate eraldatua

Azken urte eta erdi honetan gizarteak azken hamarkadetan izan duen krisirik garrantzitsuenetako bat izan dugu aurrean.

Inflexio-puntua izan da gure ideiak birformulatzeko -baita kultura eta sorkuntza garaikidean oinarrituta ere-, bizi garen munduari buruz eta gizakien artean eta naturarekin dugun harremanari buruz. Inflexio-puntua hausnartzeko gure errealitatea zein den eta zein normaltasunera itzuli nahi dugun.

Duela aste batzuk ikusi genuen Prototipoak, Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalean. Programa horretako proiektuek sorkuntza garaikideko gai eta diziplina ugari irudikatzen dituzte. Proposamen guztiak geruzez osatuta daude, hainbat norabide zeharkatzen eta hainbat alderdi jorratzen dituzten geruzez. Bidegurutze artistiko desberdinak, errealitate eraldatua itzultzen digutenak. Hori guztia esperimentazio-esparru komun eta kolektibo batetik, "egote" horretan, "egite" horretan, "pentsatze" horretan gure esperientzia eta hura pentsatzeko moduak aldatzea lortzen duen esparrutik.

Hilabete hauetako kultura-programazioak proposamen horietako batzuk biltzen ditu, garatzen, hazten eta beste estatus baterantz aurrera egiten jarraitzen duten proposamenak. Kasu batzuetan, terraza lorategi bihurtzen dute, **José Ramón Ais** artistaren arboretoarekin. Beste batzuetan, Lantegiko leihoak argazki-instalazio bihurtzen dira **Elssie Ansareo** sortzailearen eskutik. Edo eraikina bera, bilakaeran dagoen performance ekologikorako eremu ezin hobe bezala, **Diego Sologuren** eta **Sébastien Tripod** arkitektoen biotopoarekin.

Erakusketa-aretoan, **Ana Laura Aláezek** itxuraren mundura eramaten gaitu geure biografien bidez. Haren erakusketak bizitzatik arterako etaartetik bizitzarako urratsa marrazten du, sigi-saga hunkigarri eta konplexu bat eginez, non beti urratu behar baitugun gainazala. Mediateka Galerian, **Miriam Isasik** paisaiaren nortasunaz

hausnartzera bultzatzen gaitu. Lantegian, **Irati Inorizak** akuositate-forma zaharrak eta berriak esploratzen ditu, eta "errealaren" interpretazio jariakorrak sustatzen ditu, aldi berean, ulertzeko eta eraikitzeo ahalmen berriak aurkituz. Bestalde, **Maidar Aldasorok** egunerokotasuna eraldatzeko gonbita egiten digu, mugimenduak eta jokabideak aldatzen dituzten jantzi-artefaktuen bidez. Mediateka BBKn, **Borja Crespok** eta **Raquel Meyersek** gure normaltasuna berrasmatzea proposatzen digute, iragana, oraina eta etorkizuna birmoldatzeko gonbidapen gisa. Artearen eta teknologia berrien artean sortutako hibridazioak dira **Iker Vázquez** eta **Karlos Martínezek** Atarian eta Auditoriumean dituzten proiektu performatiboen oinarria.

Irailean, zentroko sorkuntza-espazioen ateak irekiko ditugu berriro, non artistek eta ikertzaileek beren proiektuak pentsatu, entseatu, ezabatu eta birplanteatzen dituzten. Berriro ere, une egokia izango da prozesu horiek ezagutzeko eta publiko-komunitateekin partekatzeko.

Zinemara, antzerkira, Mediatekara eta, azken batean, Jarduera Fisikoko Zentroa itzultzen ari diren publiko horiekin. Gure ohiturak itzultzearekin batera, energia ere itzultzen da, kulturaren esparru sozial eta partekatu honetan ditugun harremanak berrezartzeko. Pandemiaren ondoriozko ikaskuntzaz sortutako ohitura berriein, bide berri batetik abiatzen gara, non kultura hori etorkizuneko gizartearen esparru berri gisa esperimentatzen den. Hor dago, beraz, gure gonbidapena Alhóndigako ateak zeharkatzeko; gaur egungo lengoaietan oinarritutako kultura-programazioa esperimentatzeko, partekatzeko eta eraikitzeko. Proiektuak esperientzia, hausnarketa eta bizitzarako espazioak eta topaketak irekitzen ditu pertsona guztientzat, dagoeneko haiek baitira AZKO behin betiko protagonistak.

Fernando Pérez
Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria

Artea eta natura nagusi Azkuna Zentroaren uda honetako programazioan

Erakusketak, instalazioak, musika, zinema, topaketak, tailerrak... Hiruhileko honetan, Azkuna Zentroaren programazioa artistek zentroan garatzen dituzten sormen- eta ikerketa-prozesuetatik abiatuta osatzen da. Prozesu horiek hainbat diziplina artistikorekin dute lotura, hala nola biologiarekin, lorezaintzarekin, esperimenduarekin, ekologiarekin edo kolorearekin.

Erakusketa nagusiaren protagonista [Ana Laura Aláez](#) da, gaur egungo artistarik nabarmenenetako bat. Bea Espejok komisariatutako *“Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío”* artista jaio zen hirian aurkezten den tamaina honetako lehen erakusketa monografikoa da, eta bertan erakusten dira bere azken lanetako batzuk, hasierako beste batzuekin elkarrizketan.

Euskal Herriko 80ko hamarkadako testuinguruan prestakuntza jaso ondoren,



Ana Laura Aláezek irudikapenaren kritika bat garatu du, bere klase-kondizio, genero eta lekuagatik ezarritako estereotipo zurrunak auzitan jartzen dituen — eguneroko elementuak eta elementu eskultorikoak konbinatzen dituen ekoizpen baten bidez —.

[Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala](#) ekaineko lehen astean egin zen, eta irailera arte luzatuko da, zentroko hainbat espaziotan aktibo dauden proiektuen bidez. Atarian, [Elsie Ansareo](#) artistak narrazio-eraikuntza bihurtzen ditu Lantegiko leihoak, biniloan inprimatutako eta leihoetan itsatsitako koloretako 21 argazkiren bidez, esku, aho eta keinuetan zifratutako gorputz-zatiak erakutsiz eta bideo batekin lagunduta. “[BIO-INT-DÍA](#)” proposamen sentsozial eta hunkigarria da, lehen begi-kolpekoa, kolorez eta fantasiaz betea.

Terrazan, *“[Baso bidaiariak / Bosques viajeros](#)”* dago oraindik, espazio publikorako zuhaitz-lerrokadurako prototipoa, [José Ramón Ais](#) artistak espazio horretarako proiektatua.

Espazioa zeharkatzen duen erabilera publikoko lorategi gisa planteatutako lan honek Euskadiko zuhaitzen historia du ardatz, batzuk baso autoktonoetatik baitatoz eta beste batzuk inportatuak baitira. Instalazioak dei egiten dio bidaiaren iruditeriari, itsasontziak eraikitzeko lehengai gisa hasitako horri, eta gaur egun beste toki batzuetatik ekarritako barietateak dituzten basoenari.



Terrazaren zuhaitz-lerrokadurak bat egiten du Alhóndigako mendebaldeko fatxadan jarritako biotopoarekin. *“BroadWindow”*, Lantegiko leiho bat zeharkatzen duen metalezko egitura, [Diego Sologuren](#) eta [Sébastien Tripod](#) arkitekto eta artistek egina da. Ekainaren 1etik aurrera, bertako landareak dituen instalazio hau etengabeko eboluzioan dago. Proposamenak erantzuna ematen dio hirian animalia-espezieak babesteko espazioak pixkanaka desagertzen ari direla dioen hipotesiari, eta, bestetik, arkitektura-dekorazioa edo saneamendu bisuala dela-eta, eraikinetan dauden landare-espezieak desagerrarazteko egiten den ahaleginari.

Landareen erabileratik abiatuta -kasu honetan sendabelarretatik-, [Miriam Isasi](#) artistak paisaiaren identitatearen inguruan ikertu du, ikusleak hizkuntza plastikotik etnobotanikara hurbiltzeko helburuarekin. Mediateka Galerian ikus daitezke lan honen emaitzak. Proiektua haur eta familientzako berriarazko bisitekin osatzen da. *“Resina, brea y glicerina”* konifero-basoetako arroka-erretxina duten eskulturek osatzen dute, Azkuna Zentroaren sorkuntza garaikideari

laguntzeko programaren esparruan garatu den proiektua, hari gidari gisa.

Estudioak zabalik

Babestu programaren lehen edizioan [Irati Inoriza](#), [Maider Aldasoro](#), [Iker Vázquez](#) eta [Karlos Martínez](#) ere izango dira. Irailaren 16tik aurrera, beren proiektuen emaitzak aurkeztuko dituzte, zentroan urtero sorkuntza artistikoari ateak zabaltzeko egiten den jardunaldiarekin batera.

Azkuna Zentroaren hiruhileko honetako programazioa honakoarekin osatzen da: [Laida Lertxundi](#) artista AZKidearen *8 topaketa* ikus-entzunezko proiektua; Azkuna Zentroko zinemaldiaren edizio berria; jatorrizko bertsioan proiektaturiko Golem Uda programa; eta DendAZ-en izango den diseinuaren inguruko topaketa batekin. Musika loturak programako soinuen esperimentalaren bidez kultura garaikidearekiko lotura itzuliko da aurten ere Atarira.

Bisita iruzkinduen programa: espazioaren eta programazioaren bidez esperimentatzea

Azkuna Zentroan edukitzaileak eta edukiak bat egiten dute arkitekturarekin, historiarekin eta arte-sorkuntzarekin. Beraz, espazioaren eta programazioaren bidez deskubritzeko eta esperimentatzeko lekua da. Proiektu hau zer testuingurutan garatzen den jakiteko eta zentroa bisitatzen duten pertsonen esperientzia hobetzeko, bisitaldi iruzkinduen programa garatzen da, hainbat publiko-komunitatetara egokitua eta talde txikitik antolatua, pertsonak modu aktiboan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Alhóndigaren iragana eta oraina

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao hiri bat da, hiri baten barruan, eraikin, kale eta plaza publikoa eta guzti, bertan bizi delarik horietatik igarotzen den era askotako jendea. Zentro garaikide honek giroan gordetzen du bere funtsa, eta arteekin topo egiteko eta pertsonen arteko harremanetarako pentsatu da. Leku bat egoteko, esperimentatzeko eta igarotzeko.

Espazioa bisitatuz proiektu honen historiaren berri izango dugu: nola pentsatu zen, Atariko 43 zutabeen zergatia edo zer gertatzen den eraikinaren azpian. Ibilbideak terraza hartzen du barnean, begirada berria eskaintzen baitu hiriararen erdiguneaz eta testuinguruan jartzen baitu Bilboko

Alondegia izan dena eta dena: 110 urte baino gehiago dituen hiriko ardoen, olioaren eta ozpinetakoen biltegia, Kultura Zentroa gisa hamar urte bete dituena.

Ibilbide horiek uztailaren 6tik irailaren 14ra bitartean programatu dira, astearteetan 17:30ean (euskaraz) eta 18:30ean (gaztelaniaz), ordubeteko iraupenaz. Irailaren 21etik aurrera, astearte eta asteazkenetan egingo dira. Ingeleseztan eta frantsesez ere eskaintzen dira, aldezturik eskatuta.

«UZTAILAREN 6TIK IRAILAREN 15ERA BITARTEAN, "ARTEA ETA NATURAK, IBILBIDE BAT AZKUNA ZENTROAREN PROGRAMAZIOTIK" PROGRAMA AKTIBATUKO DA, ETA BISITA IRUZKINDUAK EGINGO DIRA, ESPERIENTZIAREN ETA HAUSNARKETA PARTEKATUAREN BIDEZ KULTURA ETA LENGOAIA ARTISTIKO BERRIEKIN ELKARTZEKO».

Ibilbidea programaziotik

Uda honetan, "Artea eta Naturak, ibilbide bat Azkuna Zentroaren programaziotik" programa berria aktibatuko da, eta udako hilabeteetan egiten den kultura-jarduerara bestelako hurbilketa bat proposatuko du.



Iruzkindutako bisitek aukera ematen dute kultura eta lengoia artistiko berriekin elkartzeko, esperientzia eta hausnarketa partekatuaren bidez.

Ordubetez, joan-etorri oso bat proposatzen da: eraikinaren eta kultura-proiektuaren historia eta arkitekturatik hasi, eta hilabete hauetan irekitako erakusketa eta instalazioetarako: Elssie Ansareo artistaren *"BIO-INT-DÍA"* argazki-proposamena Atarian; José Ramón Ais artistak diseinatutako *"Baso bidaiariak / Bosques viajeros"* zuhaitz-lerroakadurako prototipoa Terrazan; Diego Sologuren eta Sébastien Tripod arkitekto eta artisten *"BroadWindow"* biotopo esperimentalak Iparragirre kaleko fatxadan; Miriam Isasi artistaren *"Resina, brea y glicerina"* ikerketa-proiektua Mediateka BBKn; eta Ana Laura Aláez artistaren *"Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío"* erakusketa-aretoa. Bisitak asteazkeneko antolatuko dira, uztailaren 6tik irailaren 15era, 17:30ean (euskaraz) eta 18:30ean (gaztelaniaz).

Ingelesez eta frantsesez ere eskainiko dira, aldez aurretik eskatuta.

Gainera, ostegunero, 18:00etan eta 19:00etan, Ana Laura Aláezen *"Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío"* erakusketaren bisitaldi iruzkindua eskainiko da. Deribak Azkuna Zentroan

Espazioan eta pentsamenduan esperientzia desberdin bat izatea nahiago dutenek informazioa eska dezake AZ Infon, [Azkuna Zentroko artista AZkide Oscar Gómez Matak](#), [Espe López](#) artistarekin batera egin dituen Deribe buruz. Partzialki zuzendutako pasiera edo ibilaldi individualak hauetan pentsamendua beste leku batera joatea sustatzen da, inguruzten gaituena beste modu batera hautemanetz eta norbera behatzaile gisa sumatuz.

Esperientzia artistiko honek aukera ematen digu gure tokiaz jabetzeko, inguruneko fluxuari dagokionez; Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko esperientzia bizitzeko beste era bat.

[Bisita-programari buruzko informazio gehiago, 88. orrialdean.](#)

Sormen artistikorako ate irekiak: prozesuekin topaketa

Irailaren 16, osteguna.
Save the Date

Irailaren 16an, osteguna, Azkuna Zentroak [berriro irekiko dizkio ateak arte-sorkuntzari](#) Jardunaldi horretan arte-sorkuntzari laguntzeko programen bidez beren proiektuak garatzen ari diren artistekin partekatu eta espermentatu ahal izango du publikoak. Hogeita hamar sortzailek baino gehiagok dute zentroarekin lotura programazioaren ildoen inguruko ikerketa, sormena eta ekoizpena sustatzen duten ekimenen bidez: zuzeneko arteak, kultura digitalak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura eta arte bisualak, publikoei gerturatuko zaizkie, nahiz egindako obren bidez nahiz sortzeko prozesuen bidez.

Aurtengo jardunaldian azken hilabeteetan [Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa berezian](#) lan egin duten artisten proiektuen aurkezpena nabarmentzen da. 2020an aktibatutako zen deialdi hori Covid-19ak erasandako prozesuen eta ikerketen garapena bultzatzeko. [Irati Inoriza](#), [Maider Aldasoro](#), [Karlos Martinez](#) eta [Iker Vázquez](#), lanak

egongo dira ikusgai urriaren 10era arte Zentroko zenbait gunetan. Babestuko egoiliarak dira, halaber, [Miriam Isasi](#) eta [Borja Crespo & Raquel Meyers](#), eta hauek irailaren 16an irekiko dituzte beraien guneen ateak Mediateka BBKn, sormen-prozesuak aurkeztu eta partekatzeko.

Azkuna Zentroari atxikitako [Isabel de Naverán](#), [Laida Lertxundi](#) eta [Aimar Arriola](#) artisten eta ikertzaileen lan prozesuak ikusi ahal izango dira Ate Irekietan Lantegia. Ideien laborategian dituzten guneean. Gainera, [Sra. Polaroida \(Alaitz Arenzanak & María Ibarretxek\)](#), Azkuna Zentroko artista AZkideek 2019tik garatu duten Jakintsuen kontseiluarekin jarraitzen dute, hainbat esparrutako emakume helduekin eta profesionalekin izandako topaketen zikloaren saio berri batekin.

[Javier Arbizu](#) artistak [Talud mediodía](#) aurkeztuko du [Julián Pacomio](#) eta [David Bestué](#) artisten lanen inguruan. Proiektu hau aukeratu da Azkuna Zentroan



garatzeko Komisario Berriak deialdiaren bidez; Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Artium, Tabakalera eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila izan dira ekimenaren sustatzaileak.

Musika esperimentalaren esparruan eta *Hotsetan, soinu eta musika esperimental programaren baitan, Zukan hirukoak (Maria Zubimendi, Gorka Catediano & Jon Ansorena)* bertaratuekin partekatuko du tinbre-konbinazio berrien mundu anitza, muturreko sail dinamikoa eta instrumentu guztien polifonia posiblea.

Jardunaldia amaitzeko, **#Kinu5** saioa izango dugu **Tractora** artista kooperatibaren eskutik, Talde Egoiliarren Programaren baitan. **Ainara Elgoibarrek** eta **Usue Alberdik**, *Kinu* autoprestakuntzako tresna bat da esperientzia sortzaileak partekatzeko, eta, horien bidez, espazioak irekitzeko tokiko eragileen ekoizpenerako eta prestakuntzarako, haien beharrezanetatik eta nahietatik abiatuta.

Jardunaldiko programari buruzko informazio gehiago azkunazentroa.eus atarian.

Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitatei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurrean abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



Ana Laura Aláez
Artista



Bea espejo
Komisarioa eta arte kritikaria



Maider López
Artista



Miriam Isasi
Artista eta ikertzailea



José Ramón Ais
Artista



Elsie Ansareo
Artista



Javier Arbizu
Artista eta komisarioa



Imogen Stidworthy
Artista



Elena Aitzkoa
Artista



Aimar Arriola
Komisarioa eta ikertzaile
Az-Kidea



Usue Arrieta
Artista



Ainara Elgoibar
Artista



Diego Sologuren
Arkitektoa eta artista



Sra. Polariska (María Ibarretxe y Alaitz Arenzana)
Artista Az-Kideak



Jaime de los Ríos
Artista eta komisarioa



Mainer Aldasoro
Artista



Karlos Martínez B.
Artista



Kara Güt
Artista



Sahatsa Jauregi
Azkarate
Artista



Irati Inoriza
Artista



Raquel Meyers
Artista



Iker Vázquez
Artista



Isabel de Naverán
Ikertzailea, editorea
eta komisarioa.
Ikertzaile Az-Kidea



Josune Urrutia
Ilustratzailea



Camila Téllez
Artista



Enrike Hurtado
Artista eta
irakaslea



Sirah Badiola
Artista



Laida Lertxundi
Artista Az-Kidea



Oier Iruetagoiena
Artista



Miguel A. García
Artista



Ren Ebel
Artista eta idazlea



Alejandro Alonso Díaz
Komisarioa, idazlea eta
ikertzailea



Clara Schulmann
Idazlea



Tomás Aragay &
Sofía Asensio
Societat Doctor Alonso
Artistak

the 1990s, the number of people in the UK who are aged 65 and over has increased from 10.5 million to 13.5 million (19.5% of the population).

There is a growing awareness of the need to address the health care needs of the elderly population. The Department of Health (1998) has set out a strategy for the care of the elderly, which includes a commitment to improve the quality of care for the elderly and to ensure that the needs of the elderly are met in a timely and effective manner.

The aim of this paper is to review the current state of research on the health care needs of the elderly population and to identify areas for further research.

Background

The elderly population in the UK is growing rapidly and is becoming increasingly diverse. This has led to a growing awareness of the need to address the health care needs of the elderly population.

The Department of Health (1998) has set out a strategy for the care of the elderly, which includes a commitment to improve the quality of care for the elderly and to ensure that the needs of the elderly are met in a timely and effective manner.

The aim of this paper is to review the current state of research on the health care needs of the elderly population and to identify areas for further research.

Methods

A literature search was conducted using the following databases: Medline, PsycInfo, Sociofile, and Social Science Citation Index. The search terms used were: elderly, health care needs, and quality of care.

The search was limited to English language articles published between 1990 and 2000. The search identified 100 articles.

The articles were screened on the basis of their titles and abstracts. The full text of the articles was obtained for those articles that were deemed to be relevant to the research.

Results

The search identified 100 articles. The majority of the articles (60%) were published in the 1990s. The majority of the articles (80%) were published in the UK.

The majority of the articles (70%) were published in journals that were classified as 'nursing' or 'health care'. The majority of the articles (60%) were published in journals that were classified as 'social science' or 'public health'.

The majority of the articles (80%) were published in journals that were classified as 'nursing' or 'health care'. The majority of the articles (60%) were published in journals that were classified as 'social science' or 'public health'.

Discussion

The search identified 100 articles. The majority of the articles (60%) were published in the 1990s. The majority of the articles (80%) were published in the UK.

The majority of the articles (70%) were published in journals that were classified as 'nursing' or 'health care'. The majority of the articles (60%) were published in journals that were classified as 'social science' or 'public health'.

Conclusion

The search identified 100 articles. The majority of the articles (60%) were published in the 1990s. The majority of the articles (80%) were published in the UK.

The majority of the articles (70%) were published in journals that were classified as 'nursing' or 'health care'. The majority of the articles (60%) were published in journals that were classified as 'social science' or 'public health'.

References

Department of Health (1998) *Strategy for the Care of the Elderly*. London: Department of Health.

Roberts, J. A., et al. (1998) *The Health Care Needs of the Elderly Population*. London: Department of Health.

PROGRAMAZIOA



ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA

MAI. 20 > IRA. 26

Ana Laura Aláez

*Todos los conciertos, todas las noches,
todo vacío (Kontzertu guztiak, gau
guztiak, dena hutsik)*

Komisarioa: Bea Espejo

Ana Laura Aláez (Bilbo, 1964) bere esperientzia eskultura bilakatzen du —itxuraz ezinbestez artistikoak ez diren baliabideak erabiltzen dituenen ere bai— eta eraldatzeko bitartekotzat hartzen du eskultura. Artea biziraupen-ariketa gisa aldarrikatzen du, non egunerokotasunaren zeinuk berrirakurri eta errealfate bizigarriago baten alde jartzen diren.

Euskal Herriko 80ko hamarkadako testuinguruan prestakuntza jaso ondoren, irudikapenaren kritika bat garatu du, bere klase-kondizio, genero eta lekuagatik ezarritako estereotipo zurrunka auzitan jartzen dituen —eguneroko elementuak eta elementu eskultorikoak konbinatzen dituenekoizpen baten bidez—.

Bea Espejok komisariatutako *Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik* erakusketak artistaren azken hiru hamarkadetakoa lana biltzen du, eta bere ekoizpenaren ikerketa zabaltzen du, gaur egungo panorama artistikoko egilerik nabarmenetakoa bat baita. Proiektuak batera biltzen ditu azken lanetako batzuk eta ibilbidearen hasierako beste batzuk.

Artistak 2009an egindako pieza baten izenburua hartzen du erakusketak, eta elementu giltzarri bihurtzen da. Pandemiaren garaian esanahi literalagoa hartzen du ezinbestean, baina tituluak post-gertakizun baten arrastoa ekartzen du gogora. Jenderik gabeko espazioak gogoratzen ditu, hala nola musika elektronikoko klub batean argiak pizten eta apartekoa zirudien leku hori desegin egiten denekoa. Lehenagokoa eta gerokoa. Ilusioak eta itxaropenak, errealizazioen eta etsipenen aurrean.

ANA LAURA ALÁEZ. (Bilbao, 1964) Gure Artea 2013 sariaren irabazlea. Nazioarteko bienal hauetan parte hartu du: Istanbulgo 5. Bienala, Turkia, 1997; Veneziako 48. Bienala, Italia, 1999; Busango 2. eta 3. Bienala, Korea, 2000 eta 2004; Buenos Airesko Bienala, Argentina, 2001; Veneziako 49. Bienaleko Espainiako Pabiloia, 2001. Erakusketak: Dance & Disco, Espacio 1, MNCARS, Madril; Beauty Cabinet Prototype, Palais de Tokyo, Paris; Hell Disco, Helsinki City Art Museum, Finlandia; Pabellón de escultura, Musac, León; Bridge of Light, 2008, Towada Art Center-eko pieza iraunkorra, Towada City, Japonia.

BEA ESPEJO arte-kritikaria eta komisarioa da. Artearen Historian lizentziatu zen Bartzelonako Unibertsitatean, eta Arte eta Komunikazio Kritikako Masterra ikasi zuen Gironako Unibertsitatean, Madrilgo Erkidegoko Madrid 45 Arte Bisualen Programako zuzendaria da, eta El País egunkariko Babelia gehigarriko arte-arduraduna ere bai. 2007an arte-kritikaren GAC Saria jaso zuen eta 2022rako Veneziako Bienaleko Espainiako Pabiloia prestatzen ari da.

«ERAKUSKETA BAT DA, BAINA, ALDI BEREAN, ESKULTURA-MANIFESTU BAT ERE BADA, ITXURAZ EZ DIREN BALIABIDEAK ERABILTZEN DIRENEAN ERE BAI». **BEA ESPEJO KOMISARIOA**

Maiztzak 20 > irailak 26

Erakusketa Aretoa

Orduetgia

Uztailaren 1etik abuztuaren

31ra Egunero 11:00-20:00

Irailaren 1etik. Asteartetik igandera:

11:00 - 20:00

Bisita gidatuak (30'):

Ostegun guztietan, 18:00etan eta 19:00etan (Euskara eta gaztelania)

Sarrera dohainik, aurrez izena emanez gero:

AZ Info / 944 014 014

info@azkunazentroa.eus

Gehienez: 10 pertsona*

*Bisita bakoitzeko pertsona-kopurua aldatu egin daiteke pandemia kontrolatzeko une bakoitzean hartzen diren neurrien arabera. Informazio gehiago: azkunazentroa.eus

Topaketa

Ana Laura Aláez & La Ribot

Irailak 23, 18:30

Auditorioa

Koprodukzioa:

CA2M 

Centro de Arte Dos de Mayo
Comunidad de Madrid

Laguntzailea:



GOVERN
CONSSELLERIA
FONS EUROPEUS
UNIVERSITAT I CULTURA

 Institut d'estudis
balearics

Erakusketaren katalogo hirueledunak Ana Laura Aláezen testuak ditu, beste ahots batzuekin tartekatuta: Bea Espejo, Paul B. Preciado, Angel Bados, Maria José Belbel eta Sonia Fernández Pan. **dendAZ. This is basque design** saltokian eta helbide honetan dago salgai: **azkunazentroa.eus**

ARTE BISUALAK / INSTALAZIOA / TERRAZAN ARBORETOA
EKA. 1 > IRA. 19

José Ramón Ais

Baso bidaiariak / Bosques viajeros

«LERROKADURA-PROTOTIPO HONEK
BIDAIAREN IRUDITERIARA JOTZEN
DU, LURRALDE DESBERDINEN
ARTEKO ELKARRIZKETA BAT DA,
ETA ZUHAITZAK DITU LOTUNE».
JOSÉ RAMÓN AIS



José Ramón Aisen *Baso bidaiariak / Bosques viajeros* publikorako asmatutako zuhaitz-lerrokatzearen prototipoa da. Terrazan instalatuta, arboreto bat antolatzen du lerroan, espazioa diagonalean zeharkatzen duen erabilera publikoko lorategia. Arbolado para calles, imperios y paraísos seriearen baitan dago, artistak Erroman egin zuen egonaldian hasitako proiektuan; zuhaitz-lerrokatze patroiak eta ereduak sortzen ditu, zuhaitzen historiak eta testuingurutik abiatuta kontakizunak eraikiz.

Baso bidaiariak / Bosques viajeros lanean Euskadiko zuhaitzen historia da ardatza: horietako batzuk jatorriz tokiko basoetakoak dira, beste batzuk beste nonbaitetik ekarriak. Lerrokatzea osatzeko, haritzak (*quercus robur*), pagoak (*fagus sylvatica*), lizarrak (*fraxinus excelsior*), palmondoak (*washingtonia robusta*) eta pinuak (*pinus insignis*) erabili ditu.

Baso bidaiariak / Bosques viajeros honetan, zuhaitzek gure historiaren bilakaeran duten garrantzia azpimarratzen da, eta gure egungo harreman eta jardunbideei buruzko galderak eragiten ditu.



JOSÉ RAMÓN AIS UPV/
EHUn Arte Ederretan
lizentziatura eskuratuta eta
Eusko Jauriaritzako Nekazaritza
Eskolan lorezaintza-diseinuak
ikasketak eginda. Proiektuan,
argazki-sail bat sortu du,

Kubako imajinarioa eta paisaia eratzeko izan diren prozesuez hausnartzeko, gertaera historikoak, naturako baliabideen erabilera eta ustiapena, aldaketa soziopolitikoak, eta, batez ere, eguneroko erabilerak eta jendeak naturarekin duen harreman emozionala aintzat hartuta.

Bere lan-prozesuetan uztañri berean batuta daude argazkia eta irudia postproduzitzeko teknikak, landa-lana, ikerketa historikoa eta lantzen dituen espezieak landatu eta behatzea.

////////////////////////////////////

Ekainak 1 > Irailak 19
Astelehenerik igandera
9:00 - 21:00

Terraza

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

Hiruhileko honetako hezkuntza-programak lan honen inguruko haur eta familientzat zuzendutako bisita/tailerrak ditu barne. Informazio gehiago 69. orrialdean.

proto
.....
..... tipo
ak

Laguntzailea:

B Sabadell
Fundación

Baso bidaiariak / Bosques viajeros José Ramón Aisen proiektu bat da, Azkuna Zentroaren Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparruan garatua.

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA / BAT ESPAZIOA. LANTEGIA
API. 22 > UZT. 4.

Elena Aitzkoa

Lendia Song

ELENA AITZKOAK
NATURAREKIKO ETA
PAISAIAREKIKO HARREMANA
UTZI DU AGERIAN, ETA
MATERIAREN KONFIGURAZIO
POETIKOAN JARRI DU FOKUA
ETA ENERGIA SORTZAILEA



Lendia Song

Elena Aitzkoa sortzaileak *Lendia Song*, lana aurkeztu du, BAT Espazioan, aintzira baten barne-miaketatik sortutako proiektua. [sorkuntza garaikideari laguntzeko Babestu programaren](#) barruan egin du. Izaera beti performatikoarekin, sorkuntza honen abenturak lankidetzara eta bakardade-lekuak zeharkatzen ditu. Ahots- eta paisaia-grabazioen bidez igarotzen ditu espazioak, gorputz-eskultura bihurtu arte. Abestiarekin elkartzea.

Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Materiaren konfigurazio poetikoan jartzen du fokua eta sormen-energia, eta edertasuna hartzen du izakien arteko lotura-elementu gisa.

Proiektuaren parte gisa, Elena Aitzkoak *Andromeda Tünel* aurkeztu du Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalean, ekainaren lehen astean. Performance batzuk dira erakusketako eskulturen ingurukoak.

Lendia Song

**Sakonera. Ibilbidea. Hutsunea.
Mezua. Jatorria. Besoak.**


Iluntasuna. Pitzadura. Betazalak

**Eskultura
aintzira bat**

**Kantua
haizulo bat**

Irudia

Mundu baten affairea



ELENA AITZKOA (Apodaka, 1984): Besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian eta performancean eta filmak egiten aritzen da.

Azken proiektuen artean, hauek nabarmentzen dira: Zarza Corazón (2019), Valladolideko Museo Patio Herreriano; *Paraiso Terrenal* (2019) poemen eta txistuen biniloa; *Nuestro amor nació en la Edad Media* (2018) filma, eta *Headscarfs close to the Ground* performanceen zikloa, Oslo Pilot-en esparruan egina (2016). Kolektiboki eta performancearen esparruan, nazioartean erakutsi du bere lana, herrialde hauetan: Ingalaterra, Italia, Japonia, Txina, AEBak, Portugal, Norvegia eta Suedian.

////////////////////////////////////

Apirila 22 > uztaila 4

**Asteartetik ostiralera
16:00-20:00**

**Larunbatetan
11:00-20:00**

**Igandeetan
11:00-15:00**

Bat espazioa. Lantegia

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 @aitzkoa

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA / LANTEGIA. IDEIEN
LABORATEGIA **EKA. 1 > UZT. 4**

Maider López

Personaje

«EGUNEROKO EKINTZA BAT,
DENBORAN ERREPIKATZEN
DENA ETA OHARKABEAN PASA
DAITEKEENA EDO HIRIAN ERAGINA
IZAN DEZAKEENA, AUZOKO,
HIRIKO, ESPAZIO PUBLIKOKO
IRUDITERIAREN PARTE BIHURTUZ».
MAIDER LÓPEZ



Maider López artistak uztailaren 4ra arte jarri du ikusgai *Personaje* pieza, *Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren* esparruan. *Personaje* espazio publikoan gauzatzen den ekintzaz eta honen dokumentazioaz osatzen den proiektua da.

Ekintzak, 2021eko apirilaren 12tik maiatzaren 16ra bitartean Bilbon egindakoa, hirian pertsonaia bat sortzea du helburu, pertsona bat espazio publikoan infiltratuz, denboran errepikatzen den eguneroko egoera bat eraginda.

Egunero, ordu berean, neska bat etxetik atera eta hiritik ibiltzen da landare bat garraiatzen. Hogeita hamar egunez ibilbide bera egiten du, banku berean esertzen da, merkaturan eta kalean espaloi berberetan zehar ibiltzen da, zebra-bide berak zeharkatzen ditu. Eguneroko ekintza, oharkabean pasa daitekeena edo hirian interferentziak eragin ditzakeena, oroitzen bat sortuz, gurutzatzen den pertsonengan esperientzia bat sortuz, auzoko iruditeriaren zati bihurtuz.

Erakusketak 30 argazkiko bi argazki-serie ditu, bat egun bakoitzeko, bi bideo eta ekintzaren ibilbidea eta datuak biltzen dituen plano bat, bisitariak ekintza egitera, ohiko ibilbideetako pertsonaiak ikustera edo pertsona horiek benetakoak edo infiltratuak izango diren zalantza jartzera gonbidatzen dituena.

MAIDER LÓPEZ artistak bere lanean espazio publikoan eta arkitekturan esku-hartzeak egiten ditu. Gauzen eta tokien estatismoarekin hautsi, negozioaren lurraldea ireki, eta ikusteko eta harremanak izateko modu berrien bila eramaten gaitu.

Haren obra Estatuan eta nazioartean erakutsi da, hala nola Veneziako bienalean, Istanbulen, Sharjah-en eta Prospect-en. Espazio publikoan egin ditu proiektuak, adibidez, Ataskoa, Polder Cup eta Playa-n; eta erakusketetan hartu du parte, esate baterako: Arnasa, Arte Ederren

Museoa, Bilbo; Prospect 4. Contemporary Art Triennial. New Orleans (2017); 1645 Tizas. Matadero, Madril (2016), besteak beste.

////////////////////////////////////

Ekainak 1 > Uztailak 4

Asteartetik ostiralera
16:00-20:00

Larunbatetan
11:00-20:00

Igandeetan
11:00-15:00

Lab 2. Lantegia

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 maiderlopez.com

Maider Lópezek erakusgai izango du bere lana ARCO 2021. Arte Garaikidearen Azokan (Madril), Espacio Mínimo galeriarekin, 2021eko uztailaren 7tik 11ra.

proto.....
.....
..... tipo
ak

PERSONAJE Maider Lópezen proiektu bat da, Azkuna Zentroaren Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparruan garatua.

Miriam Isasi

*Resina, brea y glicerina (Erretxina,
brea eta glizerina)*

«ERRONKETAKO BAT IZAN DA MATERIAL BIZIEKIN, GORABEHERATSUEKIN ETA MUTATZEN DIRENEKIN LAN EGITEA. ERAKARRI EGITEN NAU ZAURGARRITASUN HORREK, IZERDITAN DAUDEN ETA EGITURA ALDATZEN DUTEN PIEZAK. PROZESU HORI KONTROLATZEN SAIAITZEAK AKATSA ERAGITEN DU, ETA UNE HORREXEK EMATEN DIT AUKERA, HAIN ZUZEN, AMETS EGITEKO».

Resina, brea y glicerina



Miriam Isasi artista bisualaren *Resina, brea y glicerina* erakusketak paisaiaren identitatea ikertzen du, lengoia plastiko batetik etnobotanikara hurbiltzeko, gure testuingurua ulertzeko kontzeptu natural gisa.

Lan-prozesu ireki horren abiaburua landareen sistema immunologikoetan oinarritutako funtsezko hiru ardatzen ikerketa da. Alkimiako metalezko planetak, sendabelarren ezaugarriak eta pinu-erretxina.

«Kontzeptu horiek elkar elikatzen dute, maila kontzeptualean, materialean eta sinbolikoan. Bere bideari jarraitzen dion ikerketa bezala ulertutako espazio bat, hausnarketak sortzeko laborategi bat bezala», azaldu du artistak.

Garapen-prozesuan, **Miriam Isasik** sakon ikertu ditu landareen eta petrikiloen praktika sendatzailearen arteko loturak, baliabide naturalen inguruko herri-kultura eta tradizioa, eta landareen erabilera eta botanikak egindako azterketa teknikoagoa ere bai.

Artistak Babesturen esparruan egin du lan hau. Azkuna Zentroak sorkuntza garaikideari laguntzeko duen programa berezia da Babestu, 2020an abian jarritakoa.

////////////////////////////////////

Maiatzak 27 > Irailak 26

Astelehenetik larunbatera

10:00 - 20:00

Igandeak

10:00 - 14:00

Galeria Mediateka BBK

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 miriamisasi.com

 [@miriamisasiofficial](https://www.instagram.com/miriamisasiofficial)



MIRIAM ISASI Arte Ederretan doktorea da EHU/UPVtik, eta Mexikoko UNAMen egin du nazioarteko egonaldia. Ikuspuntu garaikidean kokatuta, sortzen duen diskurtsoa eraikitzeko, hainbat arlori egiten die keinu: antropologiari, historiari, aktibismoari, paisaiari eta memoriari. Bakarkako erakusketak egin ditu

MUSACen, Montehermoson Kulturunean, Buenos Airesko C.C. Floreal Gorinin, Irun Factoryn, Mexiko Hiriko Casa Galerian eta BilbaoArte Fundazioan, besteak beste. Isasirentzat, erakusketa bakoitzak dakar espazioarekiko elkarrizketa eta proiektu bakoitzerako egindako ikerketaren sintesia. Erakusketa kolektiboetan parte hartu du: ARTIUM, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao, Erromako Espainiako Akademia, San Fernando Akademia, Bilboko Guggenheim Museoa, Torontoko Doris McCarthy Gallery, HUARTE Arte Garaikideko Zentroa, Burgosko [CAB] eta Donostiako San Telmo Museoa.

Hiruhileko honetako hezkuntza-programak lan honen inguruko haur eta familientzat zuzendutako bisita/taillerrak ditu barne. Informazio gehiago 69. orrialdean.

ARTE BISUALAK / FATXADAN ESKU-HARTZEA
EKA. 1 > IRA. 19

Diego Sologuren & Sébastien Tripod

BroadWindow

«PROPOSAMENA DA ERAIKINAREKIN
INTERAKZIOAN DEN EGITURA BAT,
EBOLUZIOAN DAGOEN EKOSISTEMA BAT
HARTZEKO MODUKOA». **DIEGO SOLOGUREN**



BroadWindow



Strato-Logique

Diego Sologuren y Sébastien Tripod arkitektoek Azkuna Zentroko mendebaldeko fatxadaren esku hartu dute *Broad Window* proiektuarekin. Instalazioak arkitekturaren eta ingurunearen arteko mendetasun ekologikoa birsortu nahi du, ekosistema esperimental bat eratuz.

Bizilekuaren ekologia baterantz seriearen barruan, egitura metaliko batek osatzen du instalazioa, Iparragirre kale aldera Lantegia 1, Ideien Laborategiaren sarrerako leiho zirkularretako bat zeharkatzen duena. Era sinbolikoan, egiturak fatxadaren konposizioa ulertzeko modu hedatua iradokitzen duen gailu gisa jokatzeko du. Bertan, ikerketa-prozesu bat garatzen da, tokiko espezie bat landatuz hasten dena, hala nola laharra, eta zenbait ekintzarekin jarraitzen du, ikusle-komunitateekin elkarriketarako, eztabaidarako eta trukerako esparru bat sortzeko.

Aldi berean, eta logika berarekin, proiektu hau Lausannen (Suitza) ere garatzen ari da *Strato-Logique* izenarekin, estalki bateko sabai-leiho baten gainean bertikalean jarrita.

////////////////////////////////////

Ekainak 1 > Irailak 19
Astelehenerdik igandera

9:00 - 21:00

Lantegia Ieko sarreran
Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

DIEGO SOLOGUREN. (1985) arkitektura ikasi zuen Donostiako ETSA-n eta geroago Sint-Lukas Brussels University-n, eta Hiri Ikasketetako Master batean parte hartu zuen han. 2014an Francis Kéré-ren bulegoan sartu zen, eta arkitektura eta diseinua ulertzeko zeukan moduan eragin zion errealitatea ezagutzeko aukera izan zuen: zintzotasuna, baliabideen ekonomia eta forma-soiltasuna. Aldi berean, bere praktika zuzentzen zuen, arkitekturak beste diziplina batzuekin dauzkan kontzeptu-mugetara eramateko. Mikroeskalatik, funtzionaltasunaren kontzeptu-mugak hedatzea aztertzen eta bilatzen zuen. Hainbat egoeratan, hibridazioan, justapozizioan, konbinazioan, parasitismoan edo testuingururik kanpo, harreman berriak eratu nahi ditu funtzioen artean, funtzioetan zehar eta funtzioez kanpo.

SÉBASTIEN TRIPOD, (1987) Sébastien Tripod, (1987) Constructlab Suitza eta Berlin erakundeetan sortzaileetako bat da. Tokiko elkarte horiek diziplinaz gaindiko eta lankidetzako profesionalen sare bat osatzen dute, eta diseinuaren, eraikuntzaren, bizikidetzaren eta ondasun komunen arteko elkarriketaren bidez inguruneak eraldatzen hasten dira. Arkitekto independentearen jarduera garatzen du, ahalduz, autoeraikuntza eta lankidetzaren bezalako gaietan zentratuta.

proto.....
.....
..... tipo
ak

Laguntzailea:

B Sabadell
Fundación


BroadWindow Diego Sologuren eta Sébastien Tripod-en proiektu bat da, Azkuna Zentroaren Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparruan garatua.

ARTE BISUALAK / ARGAZKI-INSTALAZIOA
EKA. 1 > IRA. 19

Elssie Ansareo

BIO-INT-DÍA

«BIO/INT/DIA DA SENTSazioA,
SENTSUALITATEA, ERRETRATUA
BIRPENTSATZEA GEHIEGIKERIATIK,
KEINUETIK ETA, BAI, BERRAZTERTUTAKO
ETA ESANAHI BERRIZ HORNITUTAKO
FANTASIATIK». **ELSSIE ANSAREO**



Elssie Ansareo artistak *BIO-INT-DÍA* proiektuarekin esku hartuko du Lantegia. Ideien laborategiko fatxadan, zehazki 21 leihoetan egindako instalazio fotografiko eta ikus-entzunezko irudiarekin, eta proiektio bat egingo du eraikinaren plano zeharrean kokatutako Eguzkiaren Pantailan

BIO-INT-DÍA (Bilbao-Interior-Día, Bilbo-Barnea-Eguna) izenburuak filmen gidoi teknikoaren terminologia, kokapena eta argiztapen-asmoa ditu aipagai kasu honetan. Garai batean egunerokoa zen errealitateak datorren fikzio baten eraikuntza narratiboa da.

Jarrera kontzeptual hori koloretako 21 argazki gisa aurkezten da, biniloan inprimatuta eta leihoetan itsatsita; gorputz-zatiak erakusten dituzte, eskuetan, ahoetan eta keinuetan zifratuta, minutu bateko bideo batez lagunduta. Proposamen sensorial eta hunkigarria lehen begiratuan, kolorez eta fantasiaz betea.

BIO/INT/DIA Elssie Ansareoren lehen arte-lana da, artsitak dioenez, «ezagutu genuen munduaren amaieraren ondoren. Entziero infinitu eta unbertsalaren bizipena laburbiltzen du, eremu geografiko bat zehaztuz, Bilbo. Sentipena, sensualitatea, erretratua exageraziotik birpentsatuz, keinua eta, bai, fantasia ere bai, errebisitatua, beste esanahi bat emanez. Niretzat, emakumea, zuri-beltzeko argazkilaria, fantasia ere, errebelatzailea izan da. Bai, kolorea eta fantasia behar nituen».



ELSSIE ANSAREO, (Mexiko Hiria 1979) Arte Ederretan lizentziaduna da UPV/EHUtik. Bere lan artistikoarekin hainbat espaziotako erakusketetan parte hartu du, bakarka eta taldean: Bilboko Guggenheim Museoa, Fundación Gabarrón NY, La Casa Encendida Madril, Malagako Arte Garaikideko Zentroa, Artium (Gasteiz),

Centre d'art La Panera, Marzana Espazioa, Cubo Azul eta Parisko Pavé d' Orsay besteak beste.

Bere ibilbidean Berdintasun Ministerioaren Arte Plastikoetarako INJUVE Saria eta Arte Plastikoetarako Endesa Beka jaso ditu. Bere azken argitalpena, "El Observatorio" da, historiari buruzko ikerketa-proiektu bat, Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean egina.

Arte-bilduma garrantzitsuen parte da bere lana, besteak beste, hauena: Bilboko Guggenheim Museoa, Endesa Fundazioa, Bilboarte Fundazioa, Iruñeko Udala, Artium Museoa, Teruelgo Museoa, Unicaja Fundazioa edo Mediterraneo Zentro Artistikoa (MECA).

proto
tipo
ak

Ekainak 1 > Irailak 19
Astelehenerik igandera

9:00 – 21:00

Ataria

BIO/INT/DIA Elssie Ansareoren proiektu bat da, Azkuna Zentroaren Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparruan garatua.

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA/ LANTEGIA. IDEIEN
LABORATEGIA **IRA. 16** (og.) > **URR. 10** (ig.)

Maidar Aldasoro

Aurrean goxo

MAIDER ALDASOROK GORPUTZEN
NORMALTASUNA - JOKABIDEAK,
MUGIMENDUAK, AUTOAURKEZPENA-
ALDATZERA BIDERATUTAKO
ARTEFAKTU-JANTZIAK DISEINATZEN
ETA ERAIKITZEN DITU, EGUNEROKO
EKINTZAK PUZTUZ ETA
PERFORMATUZ.



«Belarrak badaki hizketan, jarrai goxorantz». **Maidar Aldasoro** artista multidiziplinarrak Babestu. Sorkuntzari laguntzeko aparteko programako egoiliar gisa, *Aurrean goxo* proiektuaren emaitza aurkeztuko du.

Aurrean goxo berak definitzen duen bezala, «desioen bilera bat izango da, fantasia bat bizitza aspergarri baten barruan. Unibertso baten eraikuntza, nire baitan egon daitekeen gauzarik benetakoena asetzeko».

Proiektuaren oinarrian hainbat artefaktu-jantzi daude, haiek erabiltzen dituzten gorputzen egunerokotasuna aldatzera edo eraldatzera bideratuak. «Batzuetan, artefaktu hauek gorputzak elkartuta egotera behartzen dituzte, gogor musu ematera, baita jolastera ere; eta, beste batzuetan, pixka bat arriskuan jartzen dituzte. Guztiek asetzen dute eta guztiek agortzen dute», azaldu du artistak. «Artefaktu hauek eraiki ondoren, ekintza etortzen da, haiek probatzeko lana, eta bideoz grabatu edo argazkiak egiten dizkiet. Beste izaki baliotsu batzuk ere agortzen dira haiekin batera», azaldu du.

////////////////////////////////////

Irailak 16 > urriak 10

Astearte-ostiraletan:

16:00 - 20:00

Larunbatetan: 11:00 - 20:00

Igandetan: 11:00 - 15:00

Lab 2. Lantegia

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 [@maider.aldasoro](https://www.instagram.com/maider.aldasoro)



MAIDER ALDASORO 1992, Donostia). Arte Ederretan graduatua UPV/EHU eta Arte eta Sorkuntzako Ikerketa masterra egina Madrilgo

Unibertsitate Konplutentsean. Bideoa, jantzien diseinua, artefaktuen eraikuntza, performancea eta animazioa nahasten ditu bere praktikan. 2018az geroztik, arteari, bitartekaritza eta lankidetzaproiektuei buruzko kolektibo bateko kide da, Ane Rodríguez Zaitegirekin batera, eta elkarrekin garatu dituzte proiektuak CA2M Madrid-erako, Donostiako San Telmo Museorako, Bilboko Sarean-en Luzatu Gau Irekia-rako eta Donostiako Udalerako.


ARTE BISUALAK / INSTALAZIOA ETA PERFORMANCEA
IRA. 16. (og.) > URR. 10 (ig.)

Karlos Martínez

Plan K. Güt

Kara Güt artistarekin elkarlanean

«SAIOAN TARTEAN DAUDEN BI AVATARRAK
ERAKUSTEN DIRA, AHOEN MAGNETISMOAREKIN
BAT EGINDA ETA TRAPUZKO PANPINAREN
FISIKAN KONFIANTZA IZANDA, JAURTI DITZATEN
GORPUTZ BIRTUALAK BESARKADA EZINEZKOETAN
ETA BORTITZETAN BIHURRITZEN DITUEN
KOREOGRAFIA BATEAN»



Intimacy Mod Live Courtesy of Kara Güt, 2019

Karlos Martínez artistak *PLAN*, proiektua jarri du abian, Babestu. Sorkuntzari laguntzeko deialdi bereziaren esparruan. Espazio eten bat, arte-proiektuak sortzera eta aurkeztera bideratua, izaki fisikoaren eta digitalaren aldiberekotasuna esploratzeko.

Lehen plan honetan, Kara Güt artista iparramerikarraren laguntza izango du *Intimacy Mod Live* aurkezpenean. Ekintza performatibo hau zuzenean emango da, ikusleen eskaerak hartuz txat baten bidez, eta antzezlea ordezkatzuz proxy batekin. Saioan tartean dauden bi avatarrak erakusten dira, ahoen magnetismoarekin bat eginda eta trapuzko panpinaren fisikan konfiantza izanda, jaurti ditzaten gorputz birtualak besarkada ezinezkoetan eta bortizetan bihurtzen dituen koreografia batean. lan honekin, artistak galdera-sorta bat planteatu du: Espazio digitalaren bidezko bitartekaritzak giza esperientziatik urundu edo hurbildu egiten gaitu? Gorputz erreala ezabatzeak berekin dakar gure gizatasun-zentzia edo askatzen gaitu? Gorputz errealik ezean, izan al daiteke interpretazio-lengoaia erabat berri bat, identitate fisikoei lotuta ez dagoen adierazpen-modu alternatibo bat? Hori gogoan, oraindik itzultzen al dira intimitatea, desioa, sexualitatea eta irrika?.

////////////////////////////////////

Performancea:
[Irailak 16, osteguna](#)

Jantzizaindegia, Auditorioko ataurrea

Instalazioa:
[Irailaren 17tik urriaren 10era arte](#)

Jantzizaindegia, Auditorioko ataurrea

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 0plan0.com

 [@0plan0](https://www.instagram.com/0plan0)

 karagut.info



KARLOS MARTÍNEZ. (1982, Bilbo) batez ere eskulturan lan egiten duen artista da, izaera desberdineko proiektuak garatu baditu ere. Besteak beste, Oteiza Museoa, Guggenheim Bilbao Museoa, Bulegoa z/b, Azala Espazioa, Kunstraum D21, BlueProject Fundazioa eta La Casa Enpiztuta bezalako lekuetan erakutsi du bere lana.



KARA GÜT (1989, Cleveland, Ohio, AEB) diziplina anitzeko artistak irudian oinarritutako baliabide digitalekin lan egiten du. Lanaren bidez, ikertzen ditu Internetek markatzen duen bizimodutik abiatuta giza intimitateak hartzen duen forma berria, errealitatetik eraikitako urruntzea eta birtualaren botere-dinamika.

ARTE BIZIAK / IKUS-ENTZUNEZKO INSTALAZIOA
IRA. 16 (og.) > URR. 10 (ig.)

Irati Inoriza

*Nadie se baña dos veces en el mismo río,
sino en el pantano mismo (Inor ez da bi aldiz
bainatzen ibai berean, urtegi berean baizik)*

«IRATI INORIZAK, BAI URA ETA BAI
GAUA INTUIZIORAKO LEKU BIHUR
DAITEZEN UZTEN DU, GORPUTZEK
NATURAREKIN ETA TEKNOLOGIAREKIN
JARIO-ERLAZIO BAT LOTU DEZATEN.»
CATERINA AYATANEO



Irati Inoriza artistak Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa bereziaaren barruan proiektu bat aurkeztuko du: *Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo*, ikus-entzunezko instalazio horretan, ur-izate zaharrak eta berriak esploratzen ditu, eta "erreal" deitzen dugunaren etorri oneko interpretazioak sustatzen, ulertzeko eta eraikitzeko ahalmen berriak aurkituz.

Caterina Avataneo erakusketako komisarioren hitzetan, «gauze filmatuta, igerilari sinkronizatuen talde bat igerileku batean dantzan ari da. Horien mugimenduen gorputzaren mugak bultzatzen dituzte, agerian jarri indarra, erresistentzia, malgutasuna eta grazia, urarekin harmonian, ausart. Urpean izaki bakar bihurtzen dira -lore bat, itsas izaki fin bat, gorputz kolektibo bat- baina arnasak izaki kaltebera bihurtzen ditu ezinbestean. Beti behin eta berriz ur-azalera jo beharra dute, bizkor eta banaka, arnasa berreskuratuz, berriro gizaki bilakatuta.

Interprete bakarti bat dabil Enkarterriko ekosisteman. Ilargiak gidatzen ditu haren gorputz-bihurritzeak, eta naturako indar ikusezinetan urtzen den munstro-izaki bihurtuko da. Erreferentzia eginez lamia euskal pertsonaia mitologikoei, Ofeliaren irudikapenari, Astrida Neimanisen ur-gorputzei buruzko pentsamenduari edo Billie Eilishen bideo musikalen ikus-lengoaiari, bai ura eta bai gaua intuiziorako leku bihur daitezten uzten du Inorizak, gorputzek naturarekin eta teknologiarekin jario-erlazio bat lotu dezaten. Artistak euskal mitologia, artearen historia eta kultura garaikidea hartzen ditu erreferentziatzat, harreman sare interkonektatu bat induskatzeko eta aurreikusteko, norbanakoaren gorputzari zein gizarteari eragiten dioten topaketa eta talken bidez eratuta".

Irati Inorizak gonbidatuta, Caterina Avataneok komisariatutako proiektua.

////////////////////////////////////

Irailaren 17tik urriaren 10era arte

Lab 2. Lantegia

Astearte-ostiraletan:
16:00 - 20:00

Larunbatetan: 11:00 - 20:00

Igandetan: 11:00 - 15:00

Sarrera dohainik

Elkarrizketa:

Urriak 6

Elkarrizketa: Irati Inoriza
Caterina Avataneorekin

////////////////////////////////////

IRATI INORIZA Artista eta UPV/EHU Arte Garaikideko Ikerketako doktoregaia. Bmoko Unibertsitateko Performanceko Atelier-en espezializatu zituen ikasketak (Txekiar E., 2014). 2021ean bere Ejercicios a Ofelia proiektua TACA espazioan (Mallorca) erakustera gonbidatu dute eta Miquel Casablancas – Sant Andreu Contemporani Sarian hautatua. 2020an, with(in) with(out) proiektuarekin LOOP (Bartzelona) bideo jaialdian, Àngels Galerian, Rekalde aretoan (Bilbo) eta INJUVE 2018/19-n (Madril) parte hartu du.

CATERINA AVATANEO (Italia, 1989) Londres eta Turin artean lan egiten duen kuratore independentea da. NEON 2017 Kuratore saria jaso du, eta bere proiektuak erakunde eta galerietan erakutsi dituzte, hala nola, hauetan: Kunstraum, Austrian Cultural Forum, Zabłudowicz Collection (Londres); HAUS eta Pina (Viena); Britta Rettberg (Munich); Sixty Eight Art Institute (Kopenhage). 2019az geroztik, DEMO plataformako kuratorea da, eta, gaur egun, Turinen Cripta747 egonaldi-programako kuratore-taldeko kidea da.

Musika Loturak

Azkuna Zentroak eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak (BOS) *'Musika Loturak'* saioaren bigarren edizioa antolatu dute, musika eta kultura garaikidea soinu esperimentalaren bidez lotzen dituzten hainbat emanaldirekin.

Errepertorioaren barruan jaso dira musika klasikoaren estetika eta praktika artistikorik garaikideenak kontrastatzen dituzten lanak, musika esperimentaleko piezak eta musika elektronikoaren zatiak eta inprobisazioak.

Abuztuak 5:

"Euskal konpositoreen hiru belaunaldi"

· Jon Bienzobas-Pagola:

Fragmentos (8')

· G. Erkoreka: Tramuntana (10')

· Pierre-Philippe Bauzin: Poeme, saxofoi eta orkestrarako (14')

· J. Guridi: El caserío-ren II. ekitaldiaren preludioa (6')

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Iñaki Bermúdez, saxofoia

Arkaitz Mendoza, zuzendaria

Irailak 2

· Diego Sabio: Maelstrom (7')

· Salvatore Sciarrino: Autoritratto nella notte (7')

· M. Ravel: Ma mere l'oye, suite (18')

· Azken pieza laburra

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Mikel Fernández, zuzendaria

////////////////////////////////////

Abuztuak 5 eta irailak 2

Osteguna

18:30 eta 20:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso AZ Infon), leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////



Bilboko Udal Bandaren kontzertuak

Irailak 10

"Historias cercanas".

Zuzendaria: José R. Pascual-Vilaplana

Irailak 24

"La cercanía de lo ajeno".

Zuzendaria: Francisco A. Soler Compañía

////////////////////////////////////

Irailak 10 eta 24

Ostirala, 19:00

Kulturen Ataria Sarrera

dohainik, edukiera bete

arte Informazio gehiago:

bilbaomusika.eus

////////////////////////////////////

DENDAZ. THIS IS BASQUE DESIGN / DISEINUA
UZT. 22 (og.)

DendAZ. This is Basque Design

Diseinuaren eta artisautzaren inguruko topaketa

DendAZ. This is Basque Design, *Azkuna Zentroa* denda, bertako diseinuaren erreferentziatzko gune bihurtu da, 2019ko uztailean ireki zenetik. Show room dinamikoa eta biziaren ikuskerari berri bat irudikatzen du, non bertako eta nazioarteko artisten lana gauzatzen den, eta diseinatzaileen lana eta sortze-prozesua balioesten diren, erosketa sortzailearen kontzeptua sustatuz.

Une honetan diseinatzaile hauen produktuak eta proiektuak aurkituko dituzu dendAZ. This is Basque Design-en: Abad, Abana Bilbao, Aitor Saraiba, Amarenak, Ane Pikaza, Angélica Barco, Apetitu, Cookplay, Eder Aurre, Elena Ciordia, Elena Sanz, Ekomodo, Espacio Aerre, Estudios Durero, FABdefAB, Higi Vandis, Katxi Klothing, Malús Arbide, Mario Gaztelu, Mario Paniego, MRLaspiur, NRT, NUOC, Palo Palú, Pilar Morquillas, Proyecto Hemen, Susana Blasco, Tytti Thusberg, Yolanda Sanchez eta Ziriak.

Uztailaren 22an, dendAZ. This is Basque Design Atarira zabalduko da, bere ibilbidearen bigarren urtea ospatzeko, bertako diseinua bultzatuz eta ikusaraziz eta bere prozesuak erakutsiz.

////////////////////////////////////

Uztailak 22, osteguna

16:00-21:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik, edukiera bete arte

////////////////////////////////////



Azkuna Zentroak Bilboko Udalaren, BEAZ eta EIDERen, eta Euskadiko eta Nafarroako Diseinatzaileen Elkartearen laguntza du DendAZ. This is Basque Design espazioan.

2021 ATE IREKIAK

SORKUNTZA ARTISTIKOARI
ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIAK
AZKUNA ZENTROAN

OSTEGUNA, 2021EKO IRAILAK 16



Maidor Aldasoro

Javier Arbizu

Aimar Arriola

Borja Crespo & Raquel Meyers

Isabel de Naverán

Iker Vázquez

Irati Inoriza

Miriam Isasi

Laida Lertxundi

Karlos Martinez

Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe)

Tipi (Ane Abarrategi, Maddi Texeiro, Itsaso Larramendi, Ane Rodriguez)

Tractora (Ainara Elgoibar & Usue Alberdi)

Trio Zukan (Maria Zubimendi, Gorka Catediano & Jon Ansorena)

KULTURA DIGITALAK / ERREALITATE BIRTUALEKO
INSTALAZIOA **IRA. 16 SEP.** (og.) > **URR. 10** (ig.)

Iker Vázquez

Az Reality Lab

«AZ REALITY LAB DENBORA-ESPazio
BAT DA, EMAKUMEEK ARTEAREN
MUNDUAN DUTEN LEKUARI BURUZ
LAN ETA HAUSNARKETA EGITEKO,
ERREALITATE AREAGOTUKO
TEKNOLOGIEN SORKUNTZA- ETA
ERAKUSKETA-AUKEREI BURUZKO
IKERKETATIK ABIATUTA.»



Iker Vázquezek *Az Reality Lab* aurkeztuko du, ikerketa artistiko eta teknikoko proiektua, Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programa bereziaren esparruan egina.

Musaren kontzeptutik abiatuta eta horren aurrez aurre, «ahalegina egiten du sortzaileen ikusgarritasuna bultzatzen eta irudikapen berriak garatzen, erreferenteak erakutsiz, norberaren irudiaren eraikuntzatik berdintasuna sustatzeko», ikertzaileak azaldu duenez.

Horretarako, Iker Vázquezek pentsamendua artikulatzeko eta emakume artistekin hitz egiteko prozesu bat garatu du, eta horren azken emaitza emakume bakoitzaren autoordezkaritza da. Aldi berean, eta artearen eta teknologia berrien artean hibridazioak sortzeko asmoz, Errealitate Laborategia egin du. «Errealitate hedatua sortzeko eta esperimintatzeko espazio iragankorra da, bere ahalmen teknikoak eta adierazkorrak ikertzera bideratua», proposatu du. «Erretratu bakoitza formalizatzen, artistak 3Dn eskaneatu, eta markatzaile batzuen bidez erakutsiko dira; horiek telefono mugikor edo tablet baten kamerarekin fokatzean, errealitate areagotuan ikusi ahal izango dira».

////////////////////////////////////

Irailak 16 > urriak 10

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////



IKER VÁZQUEZ Artista, ikertzailea, diseinatzailea, programatzailea eta knowmad-a; batez ere, iragana eta oraina bilaketaren eta bildumaren bidez lotzen dituzten proiektuetan lan egiten duen sortzailea da, analogikoa eta digitala konbinatzen

dituzten prozesuak eta gailuak garatuz eta bertatik globaltasunaz hitz eginez. Haren lanek eta proiektuek artea zalantzan jartzeko eta esperimintatzeko tresna gisa duen kontzepzioan dute sorburu. Azken urteetan, espazio publikoko instalazio iragankorrak izan ditu ardatz, eta hainbat teknikaz eta metodologia esperimentalez baliatu da: pintura fotoluminiszentea erabiliz, hiri-jokoak sortuz, publizitate-elementuen ohiko erabilerak aldatuz eta tokiko eragileekiko loturak bilatuz, parte-hartzean funtsatutako proiektuak garatzeko.

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ARTISTA AZ-KIDEA
UZT. 1 eta 2 (ostg. eta ostr.) / **UZT. 15 eta 16** (ostg. eta
ostr.) / **IRA. 23 eta 24** (ostg. eta ostr.)

Laida Lertxundi. Artista AZkideak

8 Topaketa

«PROIEKTUAREN HELBURUA
DA 'FILMAREN ERRODAJEA'
BIRPLANTEATZEA, INGURUNE
NATURAL BATEN BARRUKO
BATERAKO JARDUERA GISA,
ETA INSTITUZIO AKADEMIKOEN
MUGETATIK KANPOKO
ESPERIMENTU PEDAGOGIKO GISA»



Laida Lertxundi

Laida Lertxundi, Artista AZkideak, 8 topaketak proiektuarekin jarraitzen du: zortzi tailer eta elkarlaneko errodaje ditu, eta emaitza 16 mm-ko obra bat izango da.

Topaketa bakoitzak bi zati ditu: Lehenengoan, tailer bat egiten da artista gonbidatu batekin Azkuna Zentroan. Bigarren zatia Bizkaiko zortzi menditan egiten da. Filmaketa bakoitzak prozesu espezifikoa hartuko du kontuan, ekoizpen zinematografiko tradizionalaren faseen barruan (kokapena, interpretazioa, gidioa, soinu-banda, ekoizpena, kamera, argiztapena eta edizioa), eta birsignifikatu egingo ditu, mugimenduan dagoen irudi-lan bat sortzeko ideia eta parametroen multzo zehatz bat eratzeko.

Lehen topaketan, Usoa Fullaondo (Algorta, 1979) artista, ikertzaile eta irakaslea izan da gonbidatua, eta, horren ondoren, proiektuak aurrera jarraituko du uztailearen 1ean eta 2an. Gesto (Performance) izeneko II. Topaketan, terapeuta somatikoa eta Feldenkrais metodoaren eta Danza Presenciaren irakaslea den Sirah Badiola eta Keira Green ikus-entzunezko artista izango dira.

Orixol mendian artistekin filmatu ondoren, uztailearen 15 eta 16an, III. Topaketa egingo da, Perkusioak (partiturak). Alejandro Alonso komisario, idazle eta ikertzailea izango dute gonbidatu, eta Anboton grabatuko dute.

Hiruhilekoa amaitzeko, IV. Topaketako gonbidatua Ren Ebel artista izango da; irailaren egingo da, Esfortzua (Produktzioa) titulupean.

Laida Lertxundi (Bilbao, 1981) Artista eta zinemagilea da, eta Los Angelesen eta Euskal Herrian bizi eta lan egiten du. Zorroztasun kontzeptuala eta plazer sentzuala uztartuz, bere filmek luraren eta gorputzaren arteko paralelismoak egiten dituzte, plazer eta esperientzia gune diren aldetik. Bere lanak hemen erakutsi dira: Whitney Biennial, NY, Hammer Museum, LIAF Bienal Biennale, Lyon, Frieze Projects New York. Eta hainbat museo eta galeriatan, besteak beste, MoMa, NY,

Tate Modern eta Whitechapel Gallery, Londres, Angela Mewes Berlin, Joan Los Angeles, Human Resources Los Angeles, MAK Schindler House ICA Museo de Arte Moderno de Medellín Kolonbia, CCCB, PS1 MoMA, Museum of Contemporary Photography Chicago, Baltimore Museum of Art, Kunstverein, Hanburgo, eta Habanako Bienalean. Bere obra LUXek banatzen du Londresen, eta Reina Sofia Arte Zentroaren Museoko bildumaren parte da. 2020an euskal artearen Gure Artea saria jaso zuen.

Laida Lertxundi 8 topaketa proiektua lantzen du artista AZ-Kide gisa.

////////////////////
PROGRAMA:

I. topaketa: LANDA-GRABAZIOAK (TOKIA)

Ekainak 17, osteguna
Tailerra Usoa Fullaondorekin:
Triangular el Deseo

Ekainak 18, ostirala *
Filmaketa Urkiolamendin

II. topaketa: KEINUA (PERFORMANCEA)

Uztailak 1, osteguna
Tailerra Sirah Badiolarekin:
Danza Presencia

Uztailak 2, ostirala*
Filmaketa Orixolen eta tailerra Keira Greenekin:
Skotomorphogenesis

III. topaketa: PERKUSIOAK (PARTITURAK)

Uztailak 15, osteguna
Tailerra Alejandro Alonso Diazekin: Resonancias

Uztailak 16, ostirala*
Filmaketa Anboton

IV. topaketa: ESFORTZUA (PRODUKTZIOA)

Irailak 23, osteguna
Tailerra Ren Ebelek: Map making

Irailak 24, ostirala*
Filmaketa Gorbeian

V. topaketa: ETENDAKO SUBLIMEA (KAMERA)

Urriak 21, osteguna
Tailerra Clara Schulmanekin:
The Compagny she Keeps

Urriak 22, ostirala*
Filmaketa Mugarren

*Kanpoko filmaketa larunbatean edo igandean egingo da, eguraldiaren arabera.

Parte-hartzaileek lagundu beharko dute ikus-entzunezko materiala lekualdatzen eta muntatzen, filmatze-prozesuaren barruan.

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emaneko gero, leku guztia bete arte


////////////////////

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK /ARTE GARAIKIDEA /
PROIEKZIOAK
IRA. 16 (ostg)

Kinu #5: Imogen Stidworthy

Tractora Koop. E.
Kolektibo egoiliarren programa

«KINU#5 IMOGEN STIDWORTHY
(LONDRES, 1963) ARTISTAREN
INGURUAN IZANGO DA, HAREN
SOINU-LAN, FILM
ETA MULTIMEDIA-INSTALAZIO
BATZUK ERAKUTZIZ.»



Tractora Koop. E. kooperatibak **Imogen Stidworthy** (Londres, 1963) artista dakar bosgarren saioan aurkezteko, haren soinu-lan, film eta multimedia-instalazio batzuk hautatuta.

«Sortu zenetik, KINU Lantaldea osatzen duten pertsonak artista bat gonbidatu nahi izan dute, ikus-entzunezkoen soinu-dimentsioa sakon lantzeko; audioa, zehatzago adierazita. Asmo horri erantzunez, KINU #5 Imogen Stidworthyri eskainita dago, haren lanetan hizkuntza eta ahotsa nagusi direla kontuan izanda. Imogenen iritziak, ahotsa material eskultorikoa da, espaziala, egunero erabiliz termino fisiko eta kulturaletan kokatzen gaituena. Haren lanek hizkuntzaren hauskortasunean sakontzen dute, egoerak kontuan hartuta, hitzak ezegonkorak dira, higituz doaz edo huts egiten dute, eta horrelakoetan beste zer ulermen-modu azaleratzen den aztertuz», azaldu dute Ainara Elgoibar eta Usue Arrieta Kinu-ren bultzatzaileek.

Imogen Stidworthyren obra filmen, soinu-lanen eta multimedia-instalazioen formakoa da, eta soinu, bideo, eskultura eta teknologia elementuak biltzen ditu. Horretarako, abiapuntutzat hartzen ditu pertsona jakin batzuekin egindako topaketak. Hizkuntzarekiko harremana nolabait errotik kaltetu zaien pertsonak dira, bizitza-esperientziengatik, praktika kulturalengatik (xamanismoa, bentrilokia), baldintza neurologiko edo fisikoengatik (afasia, hitzik gabeko autismoa).

Distirak#5 idazteko lana **Ohiane Iraguen** (Bilbo, 1985) idazleak hartu du bere gain; haren azken langintzak ere lotura estua du soinuarekin eta performatibitatearekin.



IMOGEN STIDWORTHY

(Londres, 1963): Imogen Stidworthyren obra erakusketa garrantzitsuetan erakutsi da: Sozhouko Bienala (2016), Imperial War Museum, Londres (2015), Sao Pauloko Bienala (2014), Museum Leeuwarden

(2014), Bergen Triennale 2013: Monday Begins on Saturday (2013), Total Museum of Contemporary Art, Seoul (2013), Busango Bienala (2012), 52. Urriko Aretoa, Belgrado (2011), Documenta 12, Kassel (2007). Banakako erakusketak ere jarri ditu espazio hauetan: Network, Aalst (2019), Württembergischer Kunstverein, Stuttgart (2018), AKINCI, Amsterdam (2013, 2009, 2005), Matts Gallery London; (2011, 2003), The Arnolfini, Bristol eta Kunstpavillon, Innsbruck (2010-11).

Tractora Koop. E. artisten kooperatibako Usue Arrieta eta Ainara Elgoibar Kinu proiektua garatzen ari dira Azkuna Zentroan, Kolektibo egoiliarren programaren barruan.

Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan

Zinemaldian parte hartutako eta Estatuan ikusi gabeko filmen sorta bat proiektatuko du Azkuna Zentroak bere zinema- eta ikus-entzunezko programaren barruan.

Urteroko hitzordu hau urriaren lehenengo astean izaten da eta Donostiako Zinemaldiaren emankizun-zerrenda handiaren lagin txiki bat biltzen du, Atal Ofizialean, New Directors, Perlak eta Zabaltegi sekzioetan aurkeztutako lan batzuk eskainiz.

Edizio berri honetan, Azkuna Zentroak bere programa zabaldu du, asteburuan goizeko saioetan haurrentzako filmak eskainiz. Gai. jatorri eta sari desberdinak dituzten hainbat film Bilbora etorriko dira Azkuna Zentroko Zinemaldiaren asterako, eta ikusgai jarriko dira zentroan orain dagoen zinema-programarekin batera, zeinak dimentsio historikoa -Zinematik- eta ikus-entzunezko ekoizpen garaikidea eta nazioartekoa hartzen baititu kontuan.



Irailaren 27tik urriaren 3ra arte

Astelehena > Igandea

Golem Zinemak

2 solairua

Sarrerak: Zinemako

txarteldegia eta www.golem.es



sanebastianfestival.com



Golem Uda JBA

(Jatorrizko Bertsioan Azpituluekin)

Zinemako programazioa Golem Udaren edizio berri batekin osatuko da. Uztailaren 9tik irailaren 2ra Azkuna Zentroko zinema-aretoetan, jatorrizko bertsioa eta azpituludun filmen aukeraketa bat izango da. Guztira 27 film dira, eta horien artean hamar estreinaldi, aurten zinema-aretoetara itzuliko diren zortzi film, dokumental batzuk eta Krzysztof Kieślowski zuzendariaren filmografiaren berrikuspen monografikoago bat daude.

PROGRAMA

ESTREINALDIAK

Birdsong (2019)

Hendrik Willemyns

Charulata. La esposa solitaria (1964)

Satyajit Ray

El verano de Cody (2019)

Andrew Ahn

Ghosts (2020)

Azra Deniz Okyay

I Am woman (2019)

Unjoo Moon

Josep (2020)

Aurel

La mujer ilegal (2020)

Ramón Térmens

La vampira de Barcelona (2020) Lluís Danés

Sweat (2020)

Magnus von Horn

Urtzen (2020)

Telmo Esnal

2. AUKERA

Cómo sobrevivir en un mundo material (Kajillionaire) (2020)

Miranda July

Crock of Gold: Bebiendo con Shane MacGowan (2020)

Julien Temple

Dating Amber (2020)

David Freyne

El agente topo (2020)

Maite Alberdi

Los Estados Unidos contra

Billie Holiday (2021)

Lee Daniels

Martin Eden (2019)

Pietro Marcello

My Mexican Bretzel (2019)

Nuria Giménez Lorang

The Glorias (2020)

Julie Taymor

KRZYSZTOF KIEŚŁOWSKI

Azul (1993)

Blanco (1994)

Uztailaren 9etik irailaren 2ra
Kontsultatu ordutegia golem.es
helbidean

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga
Zinemetako txarteldegian
eta www.golem.es helbidean.

INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniazko azpituluekin (JBGA).

Filma proiektatu baino 30 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

golem

Rojo (1994)

La doble vida de Verónica (1991)

No matarás (1988)

DOKUMENTALAK

Fellini de los espíritus

Libreros de Nueva York

Nación

Tommaso



esze

Antzerkia, dantza eta performancea ikusteko beste modu bat

2021-2022

Azkuna Zentroaren arte
eszenikoen denboraldia
2021eko urria > 2022ko ekaina



nAZ



TOPAKETA

**Ana Laura Aláez
& La Ribot**

Irailak 23, osteguna

18:30

Auditorioa

SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

IKERTZAILE AZ-KIDEA

Aimar Arriola

Forma-desira

Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

Pasibistak. Forma-desira proiekturako Pablo Marterekin garatutako lan-dinamika



Aimar Arriola komisarioak *Forma-desira bat* proiektuarekin jarraitzen du, Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa. Proiektua 2020ko udazkenean hasi zen, zentroko programazioaren barruan queer-kuir ikuspegiaren eta artearen presentzia areagotzeko lan-ildo propioa garatzeko gonbidapenari erantzunez. Plastika, forma eta interpretazio gaien inguruko esparru mugatuago batera eraman du Arriolak hasierako gonbidapena. Ikertzaileak dioenez, «ikerketa honetan, forma eta edukia ez daude elkarren aurka. Hala, proiektuak bere baitan hartu du queer ikasketen eta performancearen alorreko pentsalari José Esteban Muñozek iradoki zuena: "estetikara jotzeak ez du eskatzen arlo soziala saihesterik". Horren harira, proiektu honetan, forma 'arraroekiko' interesak ez du ukatzen artista parte hartzaileen konpromiso politikoa».


Tokiko eta nazioarteko artistekin hitz egitea da ikerketa honen metodologia nagusia, eta bi ekintza-motatan gauzatzen da. Batetik, idatzizko elkarrizketak eta ekarpenak (Orriak), aldizka Azkuna Zentroaren webgunean argitaratuak. Bestetik, artista horien (Ekintzak) ekoizpen iragankorrak eta ekintza publikoak, besteak beste, tailer, proiektzio edo solasaldi publikoen formatuan.

Forma-desira proiektua hasi zenetik bost hilabete igaro ostean, honela deskribatu ditu komisarioak hurrengo urratsak: «datorren hiruhilekoan, gogoetan arituko naiz, nire hiru lehen gonbidatu izandako Manu Arregui, Camila Téllez eta Pablo Marte artistekin batera gauzatutako trukeetan eta ekintza publikoetan bizitako kontu batzuei buruz. Saguzar bat edo tximeleta bat espazioan orientatzen diren bezalatsu -Camila eta Pabloreri maileguan hartutako bi irudi, hurrenez hurren-, gauzak ezagutzen hasi naiz, horiek itzultzen didatenetik abiatuta, eta orain ikerketaren abiapuntuko galderak esparru zehatzagoen inguruan antolatzen ari dira. Alde batetik, 'forma' kategoriari

buruz hausnartzen jarraitu nahi dut, eta desiraren eta arraroekiaren ideiek dualismoak birpentsatzen laguntzen digute, hala nola kurba-zuzena, gainazala-sakontasuna, edo jarduera-pasibotasuna; bereizketa horiek osatzen gaituzte gorputz gisa, eta horrek inplikazio politikoak ditu. Halaber, gauzak pentsatzeko eta bizitzeko neure ikerketa-metodo batekin esperimintatzen jarraitu nahi dut, aldi berean diskurtsiboa, plastikoa eta irekian entzutekoa izango den leku batetik».

Forma-desira proiektuarekin lotutako programazio publikoari azaroan ekingo zaio berriro. Elementu errepikakor moduan, Dogartzi Magunagoicoechea artistaren eszena-girotzea izango du.

desira
de
FORMA
desira



Forma-desira, hirugarren ekintza publikoa Pablo Martekin.

Isabel de Naverán

Uhina gogoan

Joan den otsailetik, [Isabel de Naverán](#) ikertzailea *Uhina gogoan* garatzen ari da, idazketa somatikoa kuradoretza-modu gisa hartzen duen proposamena. Arreta berezia jarritz gorputzaren pertzepzioan, zentzumenen lokailua den aldetik, proiektuak idazketa bat entseatu nahi du, aldi berean entzuteko gailu eta ikerketa-metodologia dena.

Virginia Woolfek Vita Sackville-Westi bidalitako gutun batean oinarritzen da [Uhina gogoan](#). Gutunean, idazketan erritmo egokia aurkitzeak duen garrantzia azpimarratzen du Woolfek. Olatu isil baten mugimendurekin alderatzen du, zeina itsas zabalean hasi, eta pixkanaka itsasertzerantz hurbiltzen den. Idazten duenaren zeregina, bere ustez, olatu horren mugimendua hautematea da, hurbiltzen den bitartean.

Sakoneko irudi horrekin, *Uhina gogoan* lanak elkarrizketak eta elkartrukeak egiten ditu artista eta ikertzaile batzuekin, zeinen lana koreografia, performancea, filosofia, eskultura edo poesiaren arloarekin lotzen den.

Lorea Alfaro (Estella-Lizarra, 1982) artistarekin den lehenengo hartu-emanean, eraldatzen ari den egoera bat erretratatzeko ahaleginetik abiatzen

da, Isabel de Naveránekin azaldu bezala. «Lorea Alfaro gonbidatu dut, irudiekin egiten duen lan sentsorial eta sentsualak pizten didan interesagatik, eta bertara esperientzia fisiko eta esperientzial batetik sartzeko nahiak bultzatuta. Egiten dugunaren bidez elkar ezagutzeak esan nahi du konfiantza izan behar dugula harreman material eta sentikorretan, horietan lotzen eta korapilatzen baitira gure egiteko moduak. Era berean, lekualdatze produktibo bat da, elkar entzutearen bidez egina. Historia handia eta kontakizun hegemoniko ofizialekin tentsioan sartzen diren keinu iheskor edo iragankorrak harrapatzeko intesaren oinarrian nire aurretikako ikerketak daude, dantzaren eta gorputzaren transmisioaren eta memoriaren inguruko koreografiaren arlokoak. Lorea Alfarorekin izandako korrespondentziak galderak sorrazten ditu mutazio, alterazio eta bariazio fisikoa dei ditzakegun gorputz-egoeren potentziari buruz, eta ikerketa, beste arlo batzuetara zabaltzen du. *Uhina gogoan* lanak, nola edo hala, hori bilatzen du: espazioa egiten du eta denbora ematen die harreman sentikorren bidez ehundutako esperientzia arautu gabeei, elkartrukeen bidez, eta, kasu honetan, ahalik eta modurik errazenean partekatzen dira: idazketa eta irudiak ekoitiz».



Argazkia: Lorea Alfaro

Babestu: prozesuan dauden proiektuak

Babesturen deialdi berezian hautatutako artistak beren proiektuen sorkuntza-prozesuak lantzen ari dira Lantegia. Ideien laborategia gunean.



Josune Urrutia

«Minbiziari buruzko kontakizunen taldeko ekoizpena proposatzen dut, Euskadiko Pediatria Onkologikoko Unitate baten markoan. Gurutzetako ospitaleko profesional taldearekin izaten ari naizen hizketaldien ondorioz egoera ezagutzen eta sakontzen ari naiz, kasu batzuetan bereziki egoera zaurgarriak dira, paziente gazteek bizi dituzte egoerok eta proiektuari konplexutasuna ematen dio. Era berean, pandemiaren ondorioz lanerako metodoak eta prozesuak egokitu beharra dago, gailu autonomoa izan behar da, eta horrek aukerak oso ugaritzen ditu».

Josune Urrutia
Onko

Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa bereziaren bidez hautatutako proiektuak profil eta ibilbide desberdinetako artistek zuzentzen dituzte. Horiek guztiak programazioarekin lotuta daude eta beti dute alde publiko bat, bai egindako lanaren bidez, bai sorkuntza-prozesuen bidez.

«Aukeratu zeure normaltasuna proiektu artistiko parte-hartzailea da; itxura batean "lehengora" itzultzearekin itsututa dirudien oraina berrasmatzeko beharra dagoelako sortua, orain honek ezin baitio etorkizunari bistakoa denetik harago begiratu. Raquel Meyers eta Borja Cresporen proposamen hau hausnarketarako gune analogikoa eta digitala da, orainaren eta geroaren ikuspegi sugestibo oro proposatzen duen lankidetzaz guztietara irekia. Imaginario kolektiboaren distopietara hurbilduko diren ikuspegi berriak azaltzeko premia dagoelako sortu da, eta arma-arma sare bat planteatzen du; sare horren jatorrian paperezko fanzine sorta bat dago formatu desberdinetako hainbat elkarrizketaz eratutako online errizoma bidez konektatuta».

"BIDALI ZEURE NORMALTASUNA!" DEIALDIA

«Zer da normaltasuna? Inork ez daki. Ez zuk ez nik. Inork ez. Aukeratu zeure normaltasuna. Milioika daude. Oraitxe bertan, une honetan, ehunka mila sortzen ari dira. Pixkanaka, presarik gabe baina etenik gabe. Zure "normaltasuna" nahi dugu. Imaginatu eta bidal ezazu».

Deialdia zabalik 2021eko urriaren 3ra arte.

Informazio gehiago hemen: eligetupropianormalidad.com

Borja Crespo & Raquel Meyers

Elige tu propia normalidad (Aukeratu zeure normaltasuna)



Raquel Meyers y Borja Crespo

ARTISTA AZ-KIDEAK

Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe)

Consejo de sabias

Sra. Polaroiska Kolektiboa (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe), Artista Az-Kideak, adineko emakumeen erreferenteen sorrerari eta ahalduntzeari buruzko bere sorkuntza-prozesua jarraitzen dute.



Alaitz Arenzanak eta María Ibarretxek eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektiboa. Beren obrak zinema esperimentala, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jardueraren onspen gisa, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.

 cargocollective.com/srapolaroiska -  [sra polaroiska](#)

Oscar Gómez Mata *Makers*

Oscar Gómez Matak, Artista Az-Kideak, *Deriben Katalogoa* proiektuarekin jarraitzen du, eguneroko hiri-paisaiak behatu eta arakatzeko deambulazioen proposamena.



OSCAR GÓMEZ MATA (Donostia, 1963) Suitzan bizi da eta bertan lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, 1987an Legaleón-T konpainiaren sortu baitzuen beste kide batzuekin batera, eta ikuskizunak egin baitzituen haiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak egin ditu bertan. Suitzako antzerkiko sari nazionala eskuratu zuen 2018an.

 alakran.ch

Laida Lertxundi. *8 Topaketa*

Laida Lertxundi Artista Az-Kidea da 2021etik, eta *8 Topaketa* lana garatuko du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimentu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoan mugetatik kanpo.



LAIDA LERTXUNDI Gure Artea 2020 Saria irabazi zuen. Arte Ederren Masterra egin zuen Kaliforniako Arteen Institutuan, eta BFA programa Bard College-n. Bakarkako lana erakutsi du nazioarteko museo, jaialdi eta galerietan. Arte Ederretako eta Giza Zientzietako irakaslea da Pasadenako Art Center College of Design-en.

 laidalertxundi.com

IKERTZAILE AZ-KIDEAK

Aimar Arriola *Forma desira*

Aimar Arriola Ikertzaile Az-Kidea da. *Forma desira* proiektuan jarduten du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikagoekin.

Irud.: Helena Gori 2019



AIMAR ARRIOLA (Markina-Xemein, 1976) komisarioa, editorea eta ikertzailea da. Doktorea da Londresko Goldsmiths Unibertsitateko Kultura Bisualen Saitetik. Erakusketa eta programa publikoak antolatu ditu, besteak beste, toki hauetan: MACBA; The Showroom, Londres; Centro Centro, Madril; Bilboko Arte Ederren Museoa; eta Tabakalera, Donostia. Gaur egun, Eremuak programako Batzorde Teknikoko kidea eta ikertzaile AZ-Kidea da.

 arriolaaimar -  aimar.arriola

Isabel de Naverán *La ola en la mente (Uhina gogoan)*

Isabel de Naverán izango da Ikertzaile Az-Kide berria 2021etik aurrera. Artean doktorea da UPV/EHU, eta Artes ikerketa-taldeko kidea Madrilen. Artea, koreografia garaikidea eta performancea lotzen dituen bidegurutzean ikertzen ari da, kuratoretzako, edizioako eta idazketako proiektuetan. *Ikertzaile AZ-kide* gisa, *La ola en la mente* proiektua garatuko du, idazketa somatikoan oinarritua, entzuteko eta kuratoretzako modu gisa.

Irud.: Matxalen de Pedro



ISABEL DE NAVERÁN (Getxo, 1976) 2010ean, Leire Vergara, Miren Jaio eta Beatriz Caviarekin batera 'Bulegoa z/b' sortu zuen, eta proiektu horri lotuta egon zen 2018ra arte. 2017az geroztik, Reina Sofia Museoko zuzeneko arteen kuratoretzaz arduratzen da. *Elipsiak* dantza-zikloaren komisarioa izan zen Azkuna Zentroan (2016-2018), eta 2019an, Julia Morandeararekin batera, *Un lugar en el que poder hundirse en Getxo* lanaz. 2020-2021 bitartean, honen komisarioa da: *Irudia Aztertze XXVI. Jardunaldiak: Por qué cuerpos, Para qué historias*, Dos de Mayo Arte Zentroa, Móstoles, Madril. Denborari buruzko kezka dago bere ikerketen azpian da, hasi koreografia hedatua denbora zinematografikoa ekoizteari buruzko doktorego-tesitik (2010) eta gorputz transmisioan eta denbora historikoaren kontzeptua praktika iragankor eta iheslarietatik berrikusten dituzten egungo proiektuetaraino. 2016. urteaz geroztik, *Envoltura*, historia eta sinkopea proiektua garatzen du, eta horrekin ari da gaur egun ere.

Artista eta Ikertzaile AZ-Kideak programak sorkuntza eta ikerkuntza bultzatzen ditu, eta laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza garaikideei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Gonbidapen bidez, hainbat artista eta ikertzaileekin aritzen gara, haien prozesuan laguntzen eta partekatzen, haien proiektzioa sustatzen eta beste sare artistiko batzuekin lotzen.

Societat Doctor Alonso

Hammamturgia

Tomás Aragay antzerki-zuzendari eta antzerkigileak eta Sofía Asencio dantzari eta koreografoak zuzendutako Societat Doctor Alonso, konpainia eszenikoak zentroko egonaldia hasi dute, Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programaren esparruan.

Hammamturgia eszena-formatuko ikerketa-prozesu berri bat da, "hammamturgia"ri buruz hausnartzen duena, dramaturgiaren bestea bezala ulertuta.

Gaur egunera arte egindako ikerketa eta sorkuntzetan, konpainiak "kode irekia" nozioarekin lan egin du beti.

«Praktikaren bidez kontzeptualki mugatzen diren barne-jarraibide edo -arau batzuekin lan egiten dugu, eta publikoari mugako espazio gisa aurre egiten dion garapen batekin: harrera irekia eta iluna izango da aldi berean, publikoa ziurgabetasunez egongo da tarte batez, kode horrek nolabait enkriptatzen baitu obraren ulermena. Giltza obran bertan badago. Ikusleak bertan sartu behar du deszifratu ahal izateko», hausnartu du Societat Alonsok.

Ildo horretan, proiektu honetan ikerketa-parametro batzuk ezartzen dira barne-kode berri bat sortzeko. «Kode hori "hammamturgia" eta "giro" ideien ingurukoa da, eta aldagai aski izan beharko ditu ikusleek ulertu ahal izateko —baina horiek irudimenerako lekua utzi beharko dute—», azaldu dute sortzaileek.



Uztailaren 12tik 23ra

**Lab2. Lantegia 2.
Ideien laborategia**



Fitxa artistikoa:

Tomás Aragay, Sofía Asencio,
Raúl Alaejos, Ana Cortés, Kim
Kidow eta Beatriz Lobo.



 doctoralonso.org

Lanean. Prozesu artistikoak laguntzeko programaren helburua da artelanen ekoizpena babestea, eta, horretarako, ikusleen komunitateetara hurbiltzea, dela egindako lanaren bidez, dela sormen-prozesuen bidez.

KOLEKTIBO EGOILIARREN PROGRAMA

Kinu

Tractora Koop. E.

Tractora Koop. artisten kooperatibako **Usue Arrieta** eta **Ainara Elgoibar Kinu** proiektua garatzen ari dira Azkuna Zentroan, **Kolektibo egoiliarren programaren** barruan. **Kinu** artisten ikus-entzunezko produkzioak programatzeko, ikusteko eta eztabaidatzeko plataforma bat da. Hiru hilean behingo topagune bat, artista bat bere lana erakustera gonbidatzen duena, harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri eta haren berezitasunei buruz taldean gogoeta egiteko. Proiektuak hiru parte ditu:

Aurkezpen publikoa:

Hiru hilean behingo saioen hasieran, artista gonbidatuaren lana proiektatu eta jendaurrean aurkeztuko da, eta, ondoren, mahai-ingurua egingo da. **Kinu** proiektua **Kinu#1** saio pilotuarekin hasi zen, Elena Aitzkoa artistaren eskutik; irailean, AZko kolektibo egoiliarra zela, **Kinu#2** saioa izan zen, **Maddi Barber** gonbidatuarekin; azaroan **Kinu#3** saioa izan zen, **Sabine Groenewegen** zinemagileari eskainia (Haga, 1985), **Kinu#4** saio bikoitza **Andrés Duque** gonbidatuarekin izan zen. **Kinu#5**, Imogen Stidworthy (Londres, 1963) artistari buruzkoa izango da eta haren soinu-lanen, filmen eta multimedia-instalazioen hautaketa bat erakutsiko da.

Lantaldea:

Aurkezpen publiko bakoitzaren ondoren, artistak zuzendutako saio bat egiten da lantalde egonkor batekin (**Lantaldea**). Talde horren dinamika gonbidatutako pertsona bakoitzaren neurria diseinatzeko da. **Lantaldea#1** eta **Lantaldea#2** lan-saioek

filmatzea izan zuten ardatz, eta ikus-entzunezko pieza bat izan zen emaitza. 16 mm-tan filmatutako pieza bat, kameran muntatua, errebelatua eta saioa egindako egunean bertan proiektatua. **Lantaldea#3** saioak beste batzuen materialekin film bat egiteko ekintza izan zuen ardatz, eta **Sabine Groenewegenek** emandako master class-etik abiatu zen.

Datorren apirilaren 17an eta 24an **Lantaldea#4** izango da, **Andrés Duque** zinemagilearen zuzendaritzapean, eta Augusto Boalek inprobisazioa filmatzeko garatutako teknikak hartuko ditu abiaburu. Boalek 70eko hamarkadatik garatutako metodologiak -Zapalduaren Antzerkia deitu zuenak- ulertzen du errealitatea eraldatzen duena eraldatzeko ekintza bihurtzen dela.

Distirak:

Azkenik, proiektua osatzeko, lantaldea osatzen duen pertsona batek testu bat egiten du (**Distirak**), lantalde bakoitzaren esperientzia jasotzeko. Azkuna Zentroan egin zen lehen saioan, **Ander Pérez** ikus-entzunezko artistak egin zuen **Distirak#2** testua. **Distirak#3** **Pablo Marte** artistaren eskutik izan zen, eta **Leire Aranberri** (Bilbo, 1993) izan da **Distirak#4** testua egin duena. **Ohiane Iraguenek** (Bilbo, 1985) idatziko du **Distirak#5**. Honen azken lanak soinuari eta performatibotasunari lotuta daude.

Kinu Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza politika-sailarekin elkarlanean burutzen da.

Kolektibo Egoiliarrak programaren bidez, hurbileko kolektiboek laguntzen diegu, arte-hizkuntzekin eta kultura garaikidearekin egiten duten lanean, era eta ikuspegi askotatik, eta elkarren arteko konplizitatea bultzatzen dugu kultura-programazioa antolatzeke orduan.

Kontsultatu **Kinu#5** hurrengo saioaren programazioa 46. orrialdean

Javier Arbizu

Talud mediodía

Azkuna Zentroak **Javier Arbizu** komisarioaren *Talud mediodía* proiektua aukeratu du, **Komisario Berriak** programaren barruan. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatua. *Talud mediodía* proiektuak **Julián Pacomio** eta **David Bestué** artisten lanak bateratzen ditu, zerikusia baitute aldirerokotasunarekin, konbergentziarekin eta argiarekin. Arbizuk proposatzen duen komisariotza-lanak Bilboko toki ikoniko bat desegiteko prozesua du abiaburu: Artxandako jolas-parkearena. "Ezpondaren" eta "eguerdiaren" irudiak erreskatatzen ditu, eskulturatik eta performaziotik jarraitasunaren eta aldirerokotasunaren ideiak jorratzeko.

«Komisario gisa nire zeregina izango da artistak entzutea, laguntzea, zaintzea, motibatzea eta ulertzea. Urrats laburrak eginez, pentsatuz forma hartzen joango den erakusketa bati laguntzea. Artisten, komisarioaren eta instituzioaren arteko konfiantzaz eta elkarrekin egonda, besterik gabe», proposatu du Javier Arbizu komisarioak.

Talud mediodía proiektua zentroko programazio-ildoekin hizketan ari da, bereziki zuzeneko arteekin eta arte bisualekin. Proposamenak, gainera, hainbat testuingurutako artistak ikusarazten ditu, eta interesak partekatzen ditu Lantegia. Ideien laborategian garatzen diren sorkuntzari laguntzeko programei lotutako hainbat lan-prozesurekin.



Azkuna Zentroak **Javier Arbizu** komisarioaren *Talud mediodía* proiektua aukeratu du, **Komisario Berriak** programaren barruan. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Azkuna Zentroa (Bilbo), Artium (Gasteiz) eta Tabakalerarekin batera (Donostia) bultzatutako programa honek euskal testuinguruan komisariotzaren praktika garatzea eta profesional berrien sorrera bultzatzea du helburu.



JAVIER ARBIZU (Lizarra, 1984) Arte Ederretan graduatua Salamancako Unibertsitatean eta Kunsthochschule Kassel-en (Alemania). Arte Ederretako Masterra (MFA) egin zuen Kaliforniako San Francisco Art Institute-n. Lanak erakutsi ditu Scope Miami Beach-en, Uharteko Arte Garaikideko Zentroan (Iruñea), Da2 (Salamanca), Angeles Baños (Badajoz), Alfama (Madril), Diego Rivera eta SOMArts (San Frantzisko) galerietan eta Sudango Museo Nazionalean (Khartoum). Erakusketak komisariatu ditu Sudango Museo Nazionalean eta Madrilgo La Casa Encendidan.

Deialdiak eta egonaldiak 2021-2022

Sorkuntza artistikoari laguntzeko programa proiektuak sustatzeko hainbat deialdiren bidez egituratzen da, laguntzan, konplizitatean eta elkarrekiko itzuleran oinarritutako estrategia batekin.



Ikusi oinarriak hemen:
azkunazentroa.eus



Dantza garaikidearen egonaldia 2022ko apirilera arte

Dantza garaikidearen egonaldia, Dansateliers Rotterdam (Holanda) sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin lankidetzan egiten da. Egonaldi hau dantzako profesionalentzat da eta bi etapatan garatzen da. Lehenengoa Azkuna Zentroan, pieza koreografiko baten ikerketa eta sorkuntza prozesuan ardaztuta; eta bigarrena Rotterdamen, egoiliarrek Dansateliersen taldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango baitu han.

Lanean. Prozesu artistikoei Etengabeko deialdia

Lanean programaren deialdia bereziki zuzenduta dago praktika artistikoko garatzeko forma berriak aztertzen dituzten artistei, sortzaileei, konpainiei eta kolektiboiei, betiere praktika horiek Zentroaren programazio-ildoan barruan badaude eta Zentroko zenbait publiko-komunitaterekin partekatzeko asmatu badira. Deialdi honen bidez, diziplina desberdinei lotutako proiektu artistiko, kultural eta sortzaileak hautatuko dira, 2021eko bigarren seihilekoan Azkuna Zentroko hainbat espaziotan garatzeko eta aurkezteko.

Komikiaren Nazioarteko Egonaldia Deialdia: laster (kontsultatu azkunazentroa.eus webgunean)

Azkuna Zentroak eta Maison de la littérature de Québec (Kanada) eta Cité internationale de la bande dessinée et de l'image de Angoulême (Frantzia) zentroek Komikiaren Nazioarteko lehen Egonaldirako deialdia egin dute narratiba grafikoko proiektu bat garatzeko. Egoitza bakoitzak bere testuinguruko pertsona bat hautatuko du. Hirurek batera hartuko dute egonaldia, elkarren segidan, hiru egoitzetan. Lehendabizi Quebec-en egongo dira, gero Angoulême eta, azkenik, Bilbon.

Beste zentro batzuk ezagutzeak, beren espazioa zalantzan jartzeak eta beste batzuen aurkitzeak aukera emango die beren mundu pertsonala eta sortzailea birdefinitzeko. Hiru hiriak ibai batek zeharkatzen ditu, eta horrek haien nortasuna, gizarte- eta kultura-ohiturak eta ekonomia definitzen ditu. Hori izango da aukeratutako egoiliarrek garatu beharreko proiektuaren oinarria. Horrela, toki horiek eta haien arteko elkarguneak eta desberdintasunak berraztertu ahal izango dituzte, ezagutza teknikoak eta esperientziak trukatzeko batera.



Tipi. Inventario del trillano

HEZKUNTZA PROGRAMA

HEZKUNTZA-PROGRAMA

Txikitekako esperientzia berriak



Txikiteka jakintzarako eta sorkuntzarako bilgune eta espazio bat da, 0 eta 12 urte bitarteko haurrei eta beren familiei zuzendua. Funts bibliografiko inprimatuaren, eta ikus-entzunezko eta informatikako funtsaren bidez egituratzen da, kultura-programazio baten bidez, hitza ardatz hartuta. Uztaila eta iraila bitartean, Mediateka

BBKren haur / familientzako espazio honek esperientzia berriak proposatuko ditu kultura eta arte garaikidearen inguruan, balioetan oinarritutako hezkuntza, genero-ikuspegia eta belaunaldien arteko topaketa lantzen dituzten proposamenen bidez. Jarduera-programa webgune honetan kontsulta daiteke: azkunazentroa.eus

TXIKITEKARA SARTZEKO BALDINTZAK

Erabiltzaileak ate nagusitik sartu, eta Mediateka Galeriarako doan atetik irtengo dira.

Espazioan sartu aurretik, eskuko gela erabili beharko da.

Edukiera: 16 pertsona eta 8 gehiago ikaskuntza-eremuan

Zerbitzu aktiboak

- Itzultzeak eta mahai-jokoak (espazioan erabiltzeko)
- Zerbitzu ofimatikoa:
- Ikaskuntza-eremurako sarbidea:
 - Gehienez 2 ordu
 - Gehienez 8 eta 12 urte arteko 8 haur

Gehienez ordubetetz egotea gomendatzen da, ikaskuntza-gunean izan ezik, hor bi orduz egon baitaiteke.



HEZKUNTZA-PROGRAMA

Haur eta familientzako bisitak / tailerrak

Uztaila eta iraila bitartean hainbat hezkuntza-jarduera egiten dira haurrak eta familiak zentzoko zenbait kultura-proposamenekin lotzeko. Bisitak / tailerrak dira, Mediateka Galerian Miriam Isasik duen instalazio artistikoaren eta Terrazan José Ramón Ais artistak diseinatu duen arboretoaren ingurukoak.

Resina, Brea y Glicerina erakusketaren bisita / tailerra haur eta familientzat

Paisaiaren identitateari lotuta garatzen ari den ikerketa bat aurkezten duen erakusketa honetan, parte-hartzaileek landareen balio sendagarria eta haien sistema immunologikoa ezagutu ahal izango dituzte, baita balio alkimikoa ere, zeina magiarekin, bitxigintzarekin eta erretxinaren erabilerarekin lotutako prozesu industrialekin lotzen gaituen. Garapen-prozesuan, gertutik aztertuko ditugu landareen eta petrikiloen praktika sendatzailearen arteko lotura, herri-kultura eta naturatik datozen elementuen erabilera.

Baso bidaiariak erakusketaren bisita / tailerra haur eta familientzat

Autore klasikoek beren kontakizunetan diotenez, zuhaitzei esker itsasoak zeharkatu eta lurralde berriak ezagutu genituen, gure etxeak eraiki genituen, jainkoen irudiak zizelkatu genituen... Horregatik, tailer honetan zuhaitzek izan duten eta duten garrantzia erakutsiko dugu, baita zurari tradizioz eman zaion erabilera eta gizartean eta kulturaren duen balio sinbolikoa ere.

////////////////////////////////////

**RESINA, BREA Y GLICERINA
ERAKUSKETAREN BISITA /
TAILERRA HAUR ETA
FAMILIENTZAT**

Osteguna:
Uztailak 1, 15 eta 29
Abuztuak 5 eta 19

Larunbata:
Uztailak 10 eta 24
Abuztuak 14 eta 28
Irailak 11

12:00 – 13:00
Mediateka Galeria. 1 solairua

////////////////////////////////////

**BASO BIDAIRIAK
ERAKUSKETAREN BISITA /
TAILERRA HAUR ETA
FAMILIENTZAT**

Osteguna:
Uztailak 8 eta 22
Abuztuak 12 eta 26

Larunbata:
Uztailak 3 eta 17
Abuztuak 7 eta 21
Irailak 4 eta 18

12:00 – 13:00
Terraza

////////////////////////////////////

INFORMAZIOA:

Izen emateko: AZ info edo
webgunea

6-12 urte

////////////////////////////////////

Inventario del rellano. Un inventario de lo imposible

Tipik azken hilabeteetan egin duen bitartekaritza-proiektuaren emaitza aurkezten du. Alhóndigako eskailera-burua aztertu du proiektuan, etxearen eta kanpoaldearen arteko tarte hori. «Testuingurua artikulatzen duten soinu-eta usaimen-elementuen eta elementu ukigarrien laginak entzutera eta biltzera atera gara. Hurbilketa horri beste leku batzuetatik ekin diogu, espedizio eta bilaketa arretatsu gisa, pasieraren lasaitasunetik. Prozesuaz gozatu dugu, galdera asko zabaldu baitira hiriarekin, auzoarekin, presentziekin, absentsiekin, agerikoarekin eta orain arte guretzat ikusezina denarekin eta azpian dagoenarekin lotuta», azaldu dute.

Irailaren 16an irekiko dira erakusketaren ateak, *Inventario del rellano. Un inventario de lo invisible* (Eskailera-buruaren inbentarioa. Ikusezinen inbentarioa) gorpuztuko duen gailua, Tipik gidatutako esplorazio kolektiboaren prozesua. Lagin honen bidez, aurkikuntzak partekatu eta mahai gainean jarriko dituzte, eguneroko testuinguruko beste kontakizun bat artikulatu nahian.

Programa irailaren 21ean amaituko da, aurkezpen ireki batekin; eta bertan hizketan arituko dira Tipiren ordezkariak, Adolfo Estalella (Xcol plataformakoa) eta Sara Álvarez (Archivo Lacianiego-koa). Zentrorako bitartekaritza-proposamena planteatzeko taldeak inspirazio gisa izan dituen ibilbidea, ikuspegiak eta egiteko moduak partekatuko dituzte.



Inventario del rellano. Un inventario de lo invisible erakusketa

Irailak 16 > urriak 3

Asteartetik ostiralera:
16:00-20:00

Larunbatetan:
11:00-20:00

Larunbatetan: 11:00-20:00

Igandetan:
11:00-15:00

Iparragirre Aretoa

**Sarrera dohainik
Aurkezpena**

Irailak 21, asteartea

18:00

Terraza (euria egiten badu, jarduera Mediateka BBK-ko TK202an egingo da)

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte; aurrez azkunazentroa.eus helbidean izena eman behar da.



Komiktekako funtsa berrantolatzea

Komikia Mediateka BBKren bilduma egituratzen duten ardatzetako bat da. Zentroko erabiltzaile-komunitateek gehien kontsultatzen duten ataletako bat da.

Urte honetan, lan handia egiten ari da Komiktekako funtsa sailkatzeko eta berrantolatzeko, helduentzako bilduma osatzen duten 5.000 liburukien arteko bilaketa errazte aldera.

Orain arte zeuden 17 atalak 8 ataletan multzokatu dira: Egile-komikia, Abenturak, Zientzia-fikziozko komikia, fantastikoa eta beldurrezkoa, Komiki historikoa (biografikoa, westerna, gerra barne),

Komiki poliziakoa, Superheroien komikia (DC Cómics, Marvel, beste batzuk), Manga eta Teknika eta sorkuntza.

Datozen asteetan amaituko diren berrikuspen-lanetan, prozesatzen ez den funtsa eskura izango dute erabiltzaileek aurrerantzean ere, Mediatekako bigarren solairuan. Zalantzarik edo galderarik baldin baduzu, bitartekaritzako langileengana jo dezakezu.

Eguneratze hori Komikteka berria aktibatzeko prozesuaren barruan kokatuta dago; prozesu hori duela urtebete hasitako Mediateka eraldatzeko planaren barruan





jarri zen abian. Funtsa kontsultatzear gain, gune honetan komikiak editatzearekin lotutako jarduerak programatzen dira. Gainera, artistek eta sortzaileek beren proiektuak landu ditzakete bertan, eta proiektu horien artean garrantzi berezia izango du Komikien Nazioarteko Egonaldi berriak.

Québec-eko La Maison de la littérature, Angoulêmeko la Cité internationale de la bande dessinée et de l'image eta Azkuna Zentroaren arteko lankidetzaren proiektua da.

Hiru erakundeak elkarlanean ari dira programa hau aktibatzen, haren bidez hiru egilek beren proiektuak elkarrekin garatu ahal izango baitituzte hiru egonaldietan: Angoulême, Bilbo eta Quebec. Beste zentro batzuk ezagutzeak, beren espazioa zalantzan jartzeak eta beste batzuen aurkitzeak aukera emango die beren mundu pertsonala eta sortzailea birdefinitzeko. Deialdiari buruzko informazio gehiago 65. orrian

Hemerotekak jarduerari berrekin dio

Mediateka BBK pixkanaka bere jardura berreskuratzen ari da. Ekainean hemeroteca-zerbitzua aktibatu da, pandemia baino lehen zegoen baldintza berberetan. Gune honetan, egunero, prentsa idatziaren hamaika goiburu kontsulta daitezke, bertakoak, estatukoak eta nazioartekoak. Gainera, Mediateka BBK-k Zentroaren programazio-ardatzekin lotutako hogeitaz argitalpen baino gehiago sartu ditu bere katalogoan, besteak beste, SusyQ, Dance Research Journal, Woman's Art Journal, Camera Obscura, Feminism, culture, and media studies, Pikara Magazine, El Ciervo eta Gamereport.



artxiboAZ:

Gordailu digitala proposamen artistiko garaikideak ulertzeko tresna gisa

2019-2023 Programa Proiektuaren baitako artxiboAZ proiektuak bere prozesua jarraitzen du. Datozen hilabeteetan irekiko da egungo jarduera eta proposamen artistikoak hezteko, zabaltzeko eta zaintzeko tresna moduan irudikatzen dituen gunen digital horretarako sarrera. Azkuna Zentroak gizartea eta kultura garaikidea lotzeko duen eginkizunaren baitakoa da ekimen hau.

ArtxiboAZ programak helburutzat hartu du Azkuna Zentroan egindako jarduera eta proposamen artistiko garaikideei buruzko informazioa eskuratzea, 2010ean ireki zenetik kultur zentro gisa egindako ibilbide osoan zehar.

Orain arte, 200 jardueratako 6.270 artxibo, 31 bilduma eta proiektuaren corpus kulturala osatzen duten 11 arte-

komunitate daude. Baliabideak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez katalogatzen dira, eta, une honetan, Gutun Zuriarekin lotutako dokumentazioa eta azken urte hauetan egindako erakusketekin lotutakoa eranstea amaitu berri da.

Egitura eta antolaketa Azkuna Zentroaren programazio-ildoetan eta ardatz estrategikoetan oinarrituta daude: arte garaikidea, zuzeneko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, kultura digitalak, literatura, bitartekoak eta argitalpenak, hezkuntza-programa, egoitza artistikoak, gizartea eta entsegu-gunea.

Plataforma aktibatu ondoren, testu-dokumentuak ikusi eta deskargatu ahal izango dira, hala nola kartelak, areto-orriak, liburuxkak, aldizkarien orriak, prentsa-dosierak..., bai eta ikus-



entzunezko dokumentuak ere, esaterako, argazkiak, audio-gidak, podcast-ak edo bideoak.

Gainera, edukiak aberasteko, artxiboAZ Mediateka BBKren katalogoarekin lotuta dago, maileguan hartzeko eta in situ kontsultatzeko gomendatutako

**ARTXIBOAZ PROPOSAMEN
ARTISTIKOAK ULERTZEKO TRESNA
GISA ERATZEN DA, ZENTROKO
SORMEN-EKOIZPENA SAILKATZEKO
ETA ZABALTZEKO MODU GISA, ETA,
ERA BEREAN, SORKUNTZARAKO
ETA BITARTEKARITZARAKO
BALIABIDE GISA, ETA EUSKAL
SORKUNTZA GARAIIKIDEAREKIN
LOTUTAKO MOTA GUZTIETAKO
EDUKIEN GORDAILU MODURA**

bibliografia erakusteko. Halaber, lanean ari da Zentroarekin lotutako artisten eta kultura-eragileen profilen datu-basea prestatzeko.

Halaber, artxiboAZk eduki interesgarri berriak aktibatzen jarraituko du, praktika artistiko garaikideei buruzko ezagutza zabaldu eta gorde dadin.

Osasun-programa berria

Jarduera Fisikoko Zentroak 60 urtetik gorako pertsonak artatzeko programa integral berri bat jarriko du abian urrian, haien bizi-kalitatea hobetzeko, ezagutzak eta gaitasunak helaraziko dizkieten jardueren eta tailerren bidez. "Osasun Premium" berri honekin arreta pertsonalizatua eskainiko da, norbere bilakaera gauzatu ahal izateko jarduera-intentsitate desberdinekin, eta aukeratzeko dituen ikastaroak egiteko ordutegi erosoan, bai igerilekuan, bai gimnasioan.

Horrela, zentroak jarduera eta bizitza aktiboko eskaintza zabaltzen du

erabiltzaile horientzat, eta begirale-taldeak egindako balorazio fisikoen jarraipen banakakoa egingo die, haien nahiak eta beharrak kontuan izanda.

Laguntza horren barruan sartzen da norbere baldintzetara ongien egokitzen diren eta ariketan esperientzia hobea izateko aukera ematen dieten jardueretarako orientazioa. Azken helburua jende horren zahartze aktiboa eta motibatua sustatzea da, eta bizitza osasungarrira atxiki daitezen bultzatzea.

[Informazio gehiago: Jarduera Fisikoko Zentroa](#)



AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

Hiru haiku: Sra. Polanowska (Alaitz Arenzana & Maria Ibañeta)



Azkuna Zentroa argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenen corpusak Zentruko jarduera biltzen du, ezagutzeko eta zabaltzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute.

Datozen argitalpenak:



Arquitecturas prematuras *Valcárcel Medina*

Kutxa + hiru koadernotxo
ISBN 978-84-091733-5-8
Orrialdeak: 96+96+80
Kutxaren tamaina: 253 x 338 mm
Argitalpen hirueleduna: espainiera-
ingeleza-euskara
PSP 49€
Caniche Editorial, MUSAC eta
Azkuna Zentroaren koedizioa

Arquitecturas prematuras

Valcárcel Medina

Arquitecturas prematuras (Arkitektura goiztiarrak) lanak Isidoro Valcárcel Medinak hirigintzari eta arkitekturari buruz asmatutako proiektu guztiak biltzen ditu. Artista duela hamarkada batzuetatik ari da hiritik eta gure ingurune eraikitik elikatzen, inspirazio- eta ekintza-iturri nagusi gisa hartzen. Ez dira proiektu utopikoak; aitzitik, artistaren beraren arabera, topikoenak dira, tokiari eta, era berean, uneari lotuenak, ez baitituzte bizitzeko moduak diktatzen, bizitza egiteko bestelako moduak proposatzen baizik. Valcárcel Medinak ekintza pertsonalen multzo bat zabaltzen du, eredu izan daitezkeenak, «baina ezin dutenak inoiz balio eredugarriak izan».

Izen bereko erakusketa MUSAC-en (Leon) ikusgai, 2021eko irailaren 26ra arte eta Azkuna Zentroan 2022ko bigarren hiruhilekoan.



ISBN: 978-84-451-3832-8
formatua: 230 x 167 mm
Orrialdeak: 323
Euskara / gaztelania / ingeleza
PVP: 20 €

Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik

Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik

erakusketaren katalogoa. Ana Laura Aláez artistaren erakusketa, Bea Espejok komisariatua eta Azkuna Zentroaren (2021eko maiatzaren 20tik irailaren 26ra) eta Dos de Mayo Arte Zentroaren (CA2M) artean ekoitzia (2019ko azaroaren 8tik 2020ko urtarrilaren 26ra). Erakusketan Ana Laura Aláezen azkenaldiko lanetako batzuk agertzen dira, haren ibilbidearen hasierako beste batzuekin eragin-trukean. Katalogoak artistaren lana kokatzen duten oinarriko testuak ditu, honako hauek eginak: Bea Espejo, Sonia Fernández Pan, Nicolas Bourriaud, María José Belver, Ángel Bados, Paul B. Preciado eta Ana Laura Aláez.



ISBN: 978-84-120368-9-3 / 2021
Orrialdeak 207
Formatua: 190 x 140 mm
Enkoadernazioa: Rustikoa, josita
PVP: 18€

Saiakera hemen hasten da

Caniche argitaletxea

2020an, Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia ezin izan zen aurreikusita zegoen bezala egin. Pandemiak eragotzi zuen *Saiakera hemen hasten da* izenburupean aurreikusitako topaketa egitea.

Jaialdiak saiakerari heldu nahi zion, genero literario gisa duen izaeraz harago joz, prozesu kultural gisa aztertuz. Eta saiakera berrasmatzea ere badenez, ahozko eta aurrez aurreko saiakera hori idatzizko saiakera izatera pasa zen, aurrez grabatua.

Horrela, Gutun Zuria 2020 *Saiakera hemen hasten da* liburua bilakatu zen: artikuluken antologia bat, non, hitzaldietan eta eztabaidetan egingo zuten bezala, egile gonbidatuek gogoetak proposatzen baitituzte egungo errealitateari buruz, belaunaldi-, ideologia- edo geografia-aniztasunetik begiratuta.



ISBN: 978-84-09-22865-2 / 2021
Orrialdeak: 400
Formatua: 220 x 270 mm
Enkoadernazioa: Tapa biguna;
Cartoné Kromoa hariz josita
PVP: 28€

Mabi Revuelta. Akromatikoa. Partida hilezkorra

Mabi Revuelta artistaren *Akromatikoa. Partida hilezkorra* erakusketaren katalogoa. Susana Blasek komisariatutako eta Azkuna Zentroak (2020ko urriaren 14tik 2021eko urtarrilaren 24ra) eta Madrilero Tabacalera Promoción del Arte (2021) elkarrekin ekoiztutako erakusketa. Proiektuak artistaren ibilbidea berrikusten du eta,aldi berean, Akromatikoa bere azken lana aurkezten du. Katalogoak Susana Blas, Luis Francisco Pérez eta Antonio Gudereren testuen bidez osatzen du proiektua.

Horrez gain ...



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao. Ardoen biltegitik Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa



Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa
Katalogo / Liburua



Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teorian
ikastaroaren 11. edizioa



Azkuna Zentroa argitalpenak [dendAZ](#). [Azkuna Zentroaren Saltokian](#) eta [dendaz](#).
[azkunazentroa.eus](#)-en erosi ditzakezu

LASTER

ZINEMATEKA



**Jean Pierre
Melville. Gaua,
katuak eta jazz.**

—
Urriaren 6tik
abenduaren 16ra

TOPAKETAK



**Gizarte
Inklusioari eta
Arte Eszenikoen
Hezkuntzari
buruzko XIII.
Jardunaldiak**

—
Azaroaren 3tik 5era

ERAKUSKETA

ROMA AKADEMIA

Processi 146

Taxio Ardanaz
José Ramón Amondarain
Itziar Barrio
Igor Bragado
Andrea Canepa
Nicolás Combarro
Isolina Díaz
Lara Dopazo
Silvia Fernández
María Ángeles Ferrer
Pablo Fidalgo
Pedro G. Romero
Begoña Huertas
Julia Huete
María Moraleda
Jorge Portillo
Marta Ramos-Yzquierdo
Estibáliz Sadaba
Fernando Sánchez-Cabezudo
Borja Santomé
Anna Talens
María del Mar Villafranca
Tono Vizcaíno

Processi 147

José Ramón Ais
Carla Berrocal
Antonio Buchanan
Ana Bustelo
Joana Cera
Jorge Cubero
Federico Guzmán
Susanna Inglada
Montse Lasunción
Jana Leo
Jorge Luis Marzo
Irene Clémentine Ortega
Javier Pividal
Enrique Radigales
Pantxo Ramas
Adolfo Serra
Begoña Soto
Claudio Sotolongo
Eduardo Soutullo
Javier Verdugo
Manuel Vilas
Ana Zamora

Roma Akademia

—
2021eko urriaren
28tik 2022ko
otsailaren 6ra

BISITATU AZKUNAZENTROA.EUS

AZKUNA ZENTROAREN

WEBGUNE BERRIA

HORARIO: 9-21H

VENTA DE TICKETS

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

BUSCAR

MENÚ

Exposición

20/05 - 26/09

ODO VACÍO - ANA LAURA AL

Exposición

22/04 - 04/07

SONG - ELENA AITZKOA. L

Taller

17/06 - 18/06

IDA LERTXUNDI. 8 ENCUEN

HOY ESTA SEMANA ESTE MES

[Ver todo](#)

AGENDA

AGENDA

/ HIRUHILEKO HONETAN

UZTAILAK 4 ARTE (2021ko apirilak 22tik)					
Orduetgia webgunean kontsultatu	Elena Aitzkoa <i>Lendia Song</i>	#erakusketa #eskultura #natura	Sarrera dohainik	LEKUA Lantegia 2, BAT Espazioa	+INFO 22. orr.
UZTAILAK 4 ARTE (2021ko uztaillak 1tik)					
Orduetgia webgunean kontsultatu	Maider López <i>Personaje</i>	#erakusketa #ekintza #espaziopublikoa	Sarrera dohainik	LEKUA Lantegia 2	+INFO 24. orr.
IRAILAK 19 ARTE (2021ko uztaillak 1tik)					
9:00-21:00	Elsie Ansareo <i>BIO-INT-DÍA</i>	#instalazioa #argazkia #kolorea	Sarrera dohainik	LEKUA Kulturen ataria	+INFO 30. orr.
IRAILAK 19 ARTE (2021ko uztaillak 1tik)					
11:00-20:00	Diego Sologuren & Sébastien Tripod <i>BroadWindow</i>	#instalazioa #biotopoa #hiri-natura	Sarrera dohainik	LEKUA Lantegia 1	+INFO 28. orr.
IRAILAK 19 ARTE (2021ko uztaillak 1tik)					
9:00-21:00	José Ramón Aís <i>Baso bidaiariak / Bosques viajeros</i>	#instalazioa #arboreto #historia	Sarrera dohainik	LEKUA Terraza	+INFO 20. orr.
IRAILAK 26 ARTE (2021ko maiatzak 20tik)					
11:00-20:00	Ana Laura Aláez. <i>Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío</i>	#erakusketa #eskultura #jatorria	Sarrera dohainik	LEKUA Erakusketa Aretoa	+INFO 18. orr.
IRAILAK 26 ARTE (2021ko maiatzak 27tik)					
Orduetgia webgunean kontsultatu	Miriam Isasi. <i>Resina, brea y glicerina</i>	#erakusketa #etnobotanika #paisaia	Sarrera dohainik	LEKUA Galeria Mediateka	+INFO 26. orr.
ABENDUAK 31 ARTE (2020ko uztaillak 1tik)					
Orduetgia webgunean kontsultatu	Nestor Lizalde <i>Aquelarre eléctrico</i>	#instalazioa #argisoinua #artedigitala	Sarrera dohainik	LEKUA Terraza	

AGENDA / UZTAILA



UZTAILAK 1 / Osteguna				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Laida Lertxundi. II Topaketa: <i>Tailerra Sirah Badiolarekin: Danza Presencia</i>	#tailerra #zinema #natura	Sarrera dohainik, aldez aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean	-	44. orr.
UZTAILAK 2 / Ostirala				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Laida Lertxundi. II Topaketa: <i>Filmaketa Orixolen eta tailerra Keira Greenekin: Skotomorphogenesis</i>	#tailerra #zinema #natura	Sarrera dohainik, aldez aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean	-	44. orr.
UZTAILAK 15 / Osteguna				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Laida Lertxundi. III Topaketa: <i>Tailerra Alejandro Alonso Díazekin: Resonancias</i>	#tailerra #zinema #natura	Sarrera dohainik, aldez aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean	-	44. orr.
UZTAILAK 16 / Ostirala				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Laida Lertxundi. III Topaketa: <i>Filmaketa Anboton</i>	#tailerra #zinema #natura	Sarrera dohainik, aldez aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean	-	44. orr.
UZTAILAK 22 / Osteguna				LEKUA	+INFO
16:00 - 21:00	DendAZ. This is Basque Design <i>Diseinuaren eta artisautzaren inguruko topaketa</i>	#diseinua #bertakoa #prozesua	Sarrera dohainik	Kulturen ataria	39. orr.

AGENDA / ABUZTUA

ABUZTUAK 5 / Osteguna				LEKUA	+INFO
18:30 eta 20:00	BOS-Az Musika Loturak Kontzertua <i>Musika Loturak</i>	#kontzertua #garaikidea #fusioa	Sarrera dohainik gonbidapenarekin	Kulturen ataria	38. orr.

AGENDA / IRAILA

IRAILAK 19 ARTE (2021ko uztailak 1tik)				LEKUA	+INFO
9:00-21:00	Elssie Ansareo <i>BIO-INT-DÍA</i>	#instalazioa #argazkia #kolorea	Sarrera dohainik	Kulturen ataria	30. orr.
IRAILAK 19 ARTE (2021ko uztailak 1tik)				LEKUA	+INFO
11:00-20:00	Diego Sologuren & Sébastien Tripod <i>BroadWindow</i>	#instalazioa #biotopoa #hiri-natura	Sarrera dohainik	Lantegia 1	28. orr.
IRAILAK 19 ARTE (2021ko uztailak 1tik)				LEKUA	+INFO
9:00-21:00	José Ramón Ais <i>Baso bidaiariak / Bosques viajeros</i>	#instalazioa #arboreto #historia	Sarrera dohainik	Terraza	20. orr.
IRAILAK 26 ARTE (2021ko maiatzak 20tik)				LEKUA	+INFO
11:00-20:00	Ana Laura Aláez. <i>Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío</i>	#erakusketa #eskultura #jatorria	Sarrera dohainik	Erakusketa Aretoa	18. orr.
IRAILAK 26 ARTE (2021ko maiatzak 27tik)				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Miriam Isasi. <i>Resina, brea y glicerina</i>	#erakusketa #etnobotanika #paisaia	Sarrera dohainik	Galeria Mediateka	26. orr.
URRIAK 3 ARTE (2021ko irailak 16tik)				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	<i>Muestra Inventario del rellano. Un inventario de lo invisible</i>	#hezuntza #bitartekaritza #aurkikuntzak	Sarrera dohainik	Sala Iparragirre	70. orr.
URRIAK 10 ARTE (2021ko irailak 16tik)				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Maider Aladasoro <i>Aurrean goxo</i>	#instalazioa #desirak #jantziartefaktoak	Sarrera dohainik	Lab 2. Lantegia	32. orr.
URRIAK 10 ARTE (2021ko irailak 16tik)				LEKUA	+INFO
9:00-21:00	Karlos Martinez <i>Plan K. Gut</i>	#instalazioa #digitala #avafarrak	Sarrera dohainik	Lab 2. Lantegia	34. orr.
URRIAK 10 ARTE (2021ko irailak 16tik)				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Irati Inoriza <i>Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo</i>	#instalazioa #ura #ekosistema	Sarrera dohainik	Lab 2. Lantegia	36. orr.
URRIAK 10 ARTE (2021ko irailak 16tik)				LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Iker Vázquez <i>Az Reality Lab</i>	#instalazioa #emakumeak #artedigitala	Sarrera dohainik	Kulturen ataria	42. orr.
ABENDUAK 31 ARTE (2020ko uztailak 1tik)				LEKUA	
Ordutegia webgunean kontsultatu	Nestor Lizalde <i>Aquelarre eléctrico</i>	#instalazioa #argisoinua #artedigitala	Sarrera dohainik	Terraza	

AGENDA / IRAILA



IRAILAK 2 / Osteguna					
18:30h eta 20:00h	BOS-Az Musika Loturak Kontzertua <i>Musika Loturak</i>	#kontzertua #garaikidea #fusioa	Sarrera dohainik gonbidapenarekin	LEKUA Kulturen ataria	+INFO 38. orr.
IRAILAK 10 / Ostirala					
19:00	Bilboko Udal Bandaren kontzertuak <i>Historias cercanas</i>	#kontzertua #banda #bertakoistorioak	Sarrera dohainik leku guztiak bete arte	LEKUA Kulturen ataria	+INFO 38. orr.
IRAILAK 16 / Osteguna					
Ordutegia webgunean kontsultatu	Sorkuntza artistikoari atek zabaltzeko jardunaldiak Azkuna Zentroan	#topaketa #sorkuntza #openestudios	Sarrera dohainik	LEKUA -	
IRAILAK 21 / Asteartea					
18:00	Aurkezpena <i>Muestra Inventario del rellano.</i> <i>Un inventario de lo invisible</i>	#hezkuntza #bitartekaritza #aurkikuntzak	Sarrera dohainik, alde aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean	LEKUA Terraza	+INFO 70. orr.
IRAILAK 23 / Osteguna					
18:30	Ana Laura Aláez & La Ribot. Topaketa	#artebisualak #artebiziak #topaketa	-	LEKUA Auditorioa	+INFO 18. orr.
IRAILAK 23 / Osteguna					
Ordutegia webgunean kontsultatu	Laida Lertxundi. IV Topaketa: <i>Tailerra Ren Ebelekin:</i> <i>Map making</i>	#tailerra #zinema #natura	Sarrera dohainik, alde aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean	LEKUA -	+INFO 44. orr.
IRAILAK 24 / Ostirala					
Ordutegia webgunean kontsultatu	Laida Lertxundi. IV Topaketa <i>Filmaketa Gorbeian</i>	#tailerra #zinema #natura	Sarrera dohainik, alde aurretik izena emanda azkunazentroa.eus helbidean	LEKUA -	+INFO 44. orr.
IRAILAK 24 / Ostirala					
19:00	Bilboko Udal Bandaren kontzertuak <i>La cercanía de lo ajeno</i>	#kontzertua #banda #gertutasuna	Sarrera dohainik leku guztiak bete arte	LEKUA Kulturen ataria	+INFO 38. orr.
IRAILAK 27 / Astelehena > 3 OCTUBRE / Igandea					
19:30	Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan	#zinema #jaialdia #estreinaldiak	Sarrerak: Zinemako txarteldegia	LEKUA Golem Zinemak	+INFO 48. orr.

ZENTROAREN ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

BISITA GIDATUAK

BISITA GIDATUAK ERAIKINETIK

Ordubeteko ibilbidea Alhóndigatik, eraikinaren historia, eraldaketa eta egungo proiektua ezagutzeko.

Partikularrak

- Uztailaren 6tik irailaren 14ra: Asteartea, 17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania).
- Irailaren 21etik aurrera:
Asteartea eta asteazkena, 17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoren.

Taldeka

- Eguna eta ordua adostuz, gutxienez 72 ordu lehenago, AZ Infon, 944 014 014 telefonoan edo info@azkunazentroa.eus helbide elektronikoren bidez.
- Prezioak:
Euskaraz edo gaztelaniaz: 50 € taldeentzat / 25 € elkarte eta ikastetxeentzat
Ingelesa edo frantsesa: 75 € taldeentzat / 50 € elkarte eta ikastetxeentzat

BISITA GIDATUAK PROGRAMAZIOTIK

Uztailaren 6tik irailaren 15era *Artea eta Naturak* programa aktibatuko da, ordubeteko ibilbide gidatua zentroaren proiektu artistikoetatik.

Partikularrak

- Asteazkena, 17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoren.

Taldeka

- Eguna eta ordua adostuz, gutxienez 72 ordu lehenago, AZ Infon, 944 014 014 telefonoan edo info@azkunazentroa.eus helbide elektronikoren bidez.
- Prezioak:
Euskaraz edo gaztelaniaz: 50 € taldeentzat / 25 € elkarte eta ikastetxeentzat
Ingelesa edo frantsesa: 75 € taldeentzat / 50 € elkarte eta ikastetxeentzat

ERAKUSKETARAKO BISITAK

- Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, erakusketa-gelan ikusgai den erakusketa testuinguruan kokatzeko .
- Ostegunero, 18:00etan eta 19:00etan (euskaraz edo gaztelaniaz, eskaeraren arabera).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoren.

Edukiera: 10 pertsona.

Kopuru hori aldatu egin daiteke osasun-egoeraren bilakaeraren arabera.

AZ TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

Gogoan izan Az txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, AZ Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu golem.es webgunean.

YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu yandiola.com webgunean.

IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irisgarria. Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiak esperientzia gogobetetzkoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.



Azkuna Zentroak Irisgarritasun Unibertsaleko AENOR ziurtagiria du, UNE 170001-1 arauaren arabera.

AZKUNA ZENTROA, GUNE SEGURUA

Azkuna Zentroak zorrotz betetzen ditu osasun-agintariek COVID-19aren aurrean ezarritako jarraibide guztiak. Zentroko jarduerak berariazko protokoloak, edukiera egokituak eta ibilbide seguruak kontuan hartuta egiten dira, eta plangintza berezita garatu da espazioak egunero eta behin eta berriz garbitzeko eta desinfektatzeko. Gainera, zentroko langileek berariazko prestakuntza- eta kontzientziatze-plana bete dute COVID-19aren prebentzioari dagokionez, eta, horren bidez, Azkuna Zentroak indartu dezake ezarritako osasun-neurrien betetze-maila.

Gogoan izan:



Zure maskara erabili



Distantzia mantendu



Espazioetara sartu baina lehen eta irteterakoan



Ez ukitu aurpegia



Ez ukitu azalera komunak. Egiten baduzu, garbitu eskuak



Erabili bakarrik beharrezkoa bada eta adierazitako edukiera errespetatuz



Ordaintzeko, txartelarekin hobe

Informazio osoa kontsulta ezazu:

